ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko maiatzaren 31 > Astelehena > VII. urtea > 279. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 urte
www.goiena.net
TOKIKOM

"Haurreskoletan menu ekologikoak bultzatzen ditugu Ekolapiko elkartean"



**Sabrina Pato** Elikadura hezitzailea eta sukaldaria > 08

**DEBAGOIENA** **Eskoriatzako gazteluko indusketen bigarren fasea, bukatuta** > 04

**DEBAGOIENA** **Ekainaren 20ra arte ez dira hasiko Aramaioko saihesbideko obrak** > 06

**OÑATI** **Egubakoitzean hasiko dituzte Corpus eguneko ospakizunak** > 18

**KIROLAK** **Arraoitajauregi eta Cruz, Euskal Herriko boulder txapeldunak** > 25

**EUSKARA** > MINTZA EGUNA

# Mingaina dantzan, euskaraz jarduteko

**EKAINAREN 6AN** Domekan egingo dute Euskal Herriko Mintza Eguna, Arrasaten, Topagunearen bitartez

**300 LAGUN** Euskal Herriko ia 60 herri eta eskualdetako lagunek egingo dute mintzapraktika > 03



Patxi Uribarren, barikuan. JULIO CALLEJA

**EUSKARA** > IZENDAPENA

## Euskaltzain oso berriak hizkuntza transmisioa izan zuen gogoan

Barikuan, Aramaioko San Martin eliza gainezka zegoela eta herritarren txalo artean egin zuen Patxi Uribarren euskaltzainak sarrera ekitaldia. Euskalgintzako izen handiak izan ziren ekitaldian. > 11

**KIROLAK** > SASKIBALOIA

## Agintari eta herritarren omenaldia, Aloñakoei

Datorren urtean lehen mailan jokatuko dute Aloña Mendiko seniorrek > 21

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39




**MUNDUMIRA** Goizean eta arratsaldean gurasoak izan ziren Mundumirako parte-hartzaile nagusi, gauean, gazteak. JULIO CALLEJA

**G2a**

## Antzuola munduko kolore, doinu eta zaporez bete da

Aurreikuspena bete eta 20.000 bisitari hartu ditu Antzuolak asteburuan. Ekitaldirik jendetsuena Bartzelonako Ojos de Brujo taldearen kontzertua izan zen. > 29-31



Goiena kluba

Mundumirako materiala opari. Nahi?

Zoaz 06. orrialdera



Orain da garaia!

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA • GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA • ERIZAINTZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

AURREMATRIKULAZIO EPEA
MAIATZAREN 31TIK EKAINAREN 11RA

902 11 20 25
LANBIDE@ARIZMENDI.IKASTOLA.NET
WWW.ARIZMENDIPRO.EU

PRO
Arizmendi ikastola




**Arantzazu Ezkibel,** Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Orain digitalera salto egin dugu:**

## > DEBAGOIENEAN

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ARAMAION , ANTZUOLAN, ELGETAN, OÑATIN,
BERGARAN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN,
ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Goitb
Goiena Telebista

*Ikustekoa!*

**EUSKARA** > MINTZA EGUNA

# Dena dago gertu 300 lagunek mingaina dantzan jar dezaten

**DOMEKAN** Ekainaren 6an Arrasaten egingo den Mintza Egunerako goiz eta arratsalderako egitaraua prestatu du Topagunea federazioak

**HERRI BAZKARIA** Ekitaldi potoloena Herriko plazako bazkaria izango da; 500 txartel atera dituzte eta herritar guztiei deitu diete parte har dezaten

**BOSGARREN EDIZIOA** Iruñea, Donostia, Getxo eta Gasteizen egin ostean, Arrasatera etorriko da Mintzapraktika egitasmoen ikasturte amaierako jaia

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

300 euskaldun berri inguru espero dira domekan Arrasaten izango den Mintza Egunerako. 300 mingain euskaraz dantzan, Mintzapraktika egitasmoaren ikasturteari amaiera jai giroan emateko. Eguna giro ederrean pasatzeaz gain, Mintzapraktika mugimenduaren tamaina ezagutzera emateko balioko du egunak.

Izan ere, ekimena Euskal Herriko ia 60 herri eta eskualdetan gauzatzen da: bospasei laguneko taldeak osatzen dira, euskaraz naturaltasunez moldatzen direnak, eta haien jarioa landu gura dutenekin elkartzen dira. Astean behin biltzen dira –gehienetan– euskaraz berba egiteko. Tarteka ekintza osagarriak antolatzen dituzte, taldekideen gustuen araberakoak. Taldekideez gain, Mintzapraktika egitasmoak euskaraz ondo dakitenengana ere heldu gura du, batez ere euskaraz egiteko ohitura dutenek baina norekin egin ez dutenek, ekarpen handia egin dezakete.

Hala ere, berbalagun guztien topaleku den ekitaldia domekan egingo den Mintza Eguna da. Aurten bosgarren edizioa izango da; 2006an Iruñean hasi zen ibilbidea. Ordutik Donostian, Getxon eta Gasteizen egin izan dute jaia eta aurten gurean egingo dute geldialdia; Arrasaten, hain zuzen.

**"JAI ERAGINKORRA"**

Topagunea euskara elkarteen federazioak antolatutako jaia da, eta helburua da federazioak euskaltegiekin eta euskalgintzako beste eragilerekin kudeatzen dituzten Mintzapraktika egitasmo ezberdinetan parte hartzen duten kideek elkar ezagutu eta egun pasa ederra egitea. Jai xumea da, baina, Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak dioenez, "eraginkorra" aldi berean: "Euskaraz hitz egiteko edozein aitzakia ona da euskaldun berriendako".



**SARIDUNAK** Iaz saritutako lagunak eta sari banatzaileak. TOPAGUNEA



**BAZKARIA** Iaz hainbat lagunek egin zuten bat bazkariarekin, Gasteizen. TOPAGUNEA

## Egitaraua

**11:00** Ongi etorria eta hamaiketakoa Biteri plazan.
**12:00** Ibilaldi gidatua herriko berezitasunak ezagutzeko.
**13:30** Kalejira herriko kaleetan.
**14:30** Herri bazkaria Herriko plazan.
**15:30** Sari eta opari banaketa.
**16:00** Erromeria Kataia taldearen eskutik

OHARRA: Bazkarirako sarrerak AEDn, Jardunen eta Loramendin daude salgai, 20 eurotan.

**500 TXARTEL BAZKARIRAKO**

Esandako moduan, Euskal Herri osoko 300 lagun inguru etortzea espero dute antolatzaileek. Goiz eta arratsalderako egitaraua prestatu dute: 11:00etan ongi etorria egingo zaie Biteri plazan eta Arrasate eta haren historia bertatik bertara ezagut dezaten ibilaldi gidatua egingo dute ondoren. 13:30ean kalejira egingo dute eta 14:30ean herri bazkaria, Herriko plazan. Bazkalosterako giroa Kataia taldeak berotuko du, plazan bertan egingo den erromerian.

Herri bazkaria da, zalantza barik, eguneko ekitaldirik potoloena. Mintzalagunez gain, antolatzaileek arrasatearren eta debagoiendarren parte-hartzea ere bultzatu gura dute eta Herriko plazan egingo den bazkariarekin bat egiteko deia egin diete. Hala, 500 txartel atera dituzte eta AED, Jardun eta Loramendi euskara elkarteetan egongo dira salgai, 20 eurotan.

**URTEKO LAN MARDULA ESKERTU**

Mendizabalek, Mintza Eguna iragartzeko joan den eguenean egin zuten prentsaurrekoan adierazi zuenez, Mintzapraktiken egitasmoak "oso zabalduta" daude euskal gizartean, eta horrek, Topaguneko zuzendariaren ustez, "eragin zuzena" du euskararen hedapenean.

Bestalde, ospakizunerako eguna izateaz gain, Mintza Egunak urte osoan zehar lan mardula egin duten lagunei eskerrak emateko ere balio du. Hala, euskararen alde lan egin duten pertsona sarituko dituzte bazkariaren ostean. Eta azkenik, azpimarratzekoa da 16:30etik aurrera Kataia taldeak eskainiko duen emanaldia. Euskaraz kantatzen duen taldea da, eta senegaldar eta gambiar jatorria dute. Antolatzaileek bete-betean asmatu dute taldearekin, ez dago-eta integrazioaren irudia erakusteko adibide aproposagorik.

ESANAK

## "Mintza Eguna eraginkorra izaten da, euskaldun berriendako edozein aitzaikia ona da-eta euskaraz egiteko"

**Jasone Mendizabal** > Topagunea

DATUA

# 60

**HERRI ETA ESKUALDE**

Mintzapratika egitasmoak Euskal Herriko ia 60 herri eta eskualdetan gauzatzen dira; hainbat izen hartzen dituzte: Berbalaguna, Mintzalaguna, Zahar-Berri...




**INDUSKETAK** > ESKORIATZAKO GAZTELUA

# Atxorrotzeko indusketen bigarren fasea, amaituta

20.000 litro ur batzeko gaitasuna duen putzu (aljibe) baten aztarnak aurkitu dituzte eta baita Nafarroako Erregeren irudia duten txanpon batzuk


Arkeologoak indusketa lanak egiten, lehen fasean. ARTXIBOA

**LANDER MUÑAGORRI** > ESKORIATZA

Atxorrotz mendira ibilaldi tematikoa egin zuten zapatuan 30 bat lagunek. Erdi Aroan tontorrean zegoen gazteluaren inguruan indusketak egiten aritu dira maiatzean, eta bertan lortutako materiala erakusteko ibilaldia zen egin zutena, indusketetan parte hartu duten arkeologoek lagunduta.

Ibilaldi horrekin, gainera, indusketa lanak amaitutzat eman dituzte, "momentuz".

**20.000 LITRO UR**

Joan den urtean egin zuten Atxorrotzeko gazteluaren indusketen lehen fasea, eraikinaren harresiaren inguruan. Material ugari atera zuten, gainera: gezi, errotarri eta abar.

Maiatzean egin dituzten indusketak, berriz, gazteluaren aljibearen (ura biltzeko erabiltzen zuten putzua) inguruan egin dituzte.

Putzu hori hasieran uste baino handiagoa dela nabarmendu dute Ibarraundi museotik, "20.000 litro ur jasotzeko bestekoa", Saioa Altzua, Ibarraundi museoko ordezkariaren esanetan.

Hori dela eta, aurkikuntza horri berebiziko garrantzia eman diote. Orain arte Atxorrotzen egin diren indusketak, gainera, harresi inguruan egin dira. Putzu ingurua lehen aldiz aztertu dute, hortaz, indusketa hori berritzailea izan dela ere esan daiteke. Berritzailea eta oparoa, ze aljibearen inguruan bestelako objektuak ere topatu dituzte, txanponak (tartean Nafarroako Errege Antsoren aurpegia dutenak) eta garaiko beste aztarna ugari.

**INFORMAZIO UGARI**

Orain arte egindako indusketa lanekin, Erdi Aroko gaztelu estrategiko horren inguruko informazio ugari lortu dute.

Aztarnen inguruko datuak jasotzeko, ordea, itxaron egin beharko dute, katalogatu eta aztertzeko denbora beharko baitute arkeologoek.

Edozein eratan ere, gazteluaren inguruan oraindik bada lanik egiteko, eraikinaren zati bat besterik ez baita aztertu orain arte. "Asko geratzen da oraindik aztertzeko. Baina etorkizunean indusketak egiten jarraituko ote dugun ez dakigu oraindik", dio Saioa Altzuak, Ibarraundi museoko langileak. Izan ere, hurrengo fase baterako kontratazioa egiteko dirulaguntzak izango ote dituzten ez dakite oraindik.

Maiatzean hasi eta zapatuan amaitu ziren indusketak Larrate enpresaren ardurapean egin dira, eta orotara bost pertsona aritu dira azken hilabete honetan Atxorrotzeko tontorrean lanean.

**ATXORROTZ, INDUSKETA-LEKU**

Larrate indusketa enpresa izan da bigarren faseko indusketen arduraduna, 2009ko indusketetan bezalaxe. Ez dira bakarrak izan, ordea. Haien aurretik hainbat arkeologo ibili dira-eta, indusketa lanak egiten: 1862an Gorosabel aritu zen, 1877an Capistao izan zen, 1922an Reca eta 1968an Barandiaran.

ESANAK

"Asko geratzen da aztertzeko; ez dakigu etorkizunean indusketak egiten jarraituko ote dugun"

"Uharka (putzu) ingurua orain arte aztertu barik zegoen; konturatu gara uste baino handiagoa dela"

**Saioa Altzua** > Ibarraundi museoko ordezkaria




**AZPIEGITURAK** > OLANDIXOKO TUNELEKO OBRAK

## Aretxabaletarako bide zaharra gaur zabalduko dute

Zirkulazio aldaketak egingo dituzte gaur hasita Mugarritte inguruan

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gaur (astelehena) gauetik aurrera Mugarritte inguruko zirkulazioan aldaketak egingo dituzte.

Arrazoia da Mugarritten biribilgune berria eraikitzeko obrak hasi behar dituztela. Hori horrela, "ahalik eta arreta handienarekin" gidatzeko eta "seinaleak errespetatzeko" eskatu dute Diputazioko ordezkariek.

Aurreikuspena da hilabetean bukatzea biribilgune berriko obrak.

**ARRASATETIK DATOZENENDAKO**

Zirkulazio aldaketen artean, iragarri dute Aretxabaletarako bide zaharra (GI-3920) zabaldu egingo dutela. Baina Aretxabaletarako noranzkoan zabalduko dute, "bakarrik Arrasatetik datozenendako, ez saihesbidetik (GI-627) datozenendako".

Zirkulazioaren gainerako egoerari dagokionez, "orain arte funtzionatu duten mugimendu berak mantenduko" dituztela adierazi dute Gipuzkoako Diputaziotik.

Ainhoa Uriarte > Irakaslea

# "Liburutegi bat Guatemalan edo hemen egiteak ez du alderik; izugarri eskertu dute"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Ainhoa Uriartek (Arrasate, 1982) Guatemala bihotzean darama. Haur Hezkuntza ikasi zuen Eskoriatzan eta Lorea Undagoitia eta Ainhoa Gobantes eskolako kideekin batera Guatemalako Santa Maria Tzeja komunitatean liburutegia eraikitzeko ideiarekin hasi zen 2005ean. Orduko ametsa hasi da egi bihurtzen, liburutegia eraikitzen hasi dira-eta. Harekin egon gara, Arrasateko Udal liburutegiaren atarian.**

**Zer galdu zitzaizun, bada, Guatemalan?**

Haur Hezkuntza ikasi nuen Eskoriatzan eta eskolakoek Guatemala eta beste hainbat herrialderekin hitzarmena zutela aprobetxatuz, hara joan nintzen praktikak egitera, eskolako beste bi kiderekin. Praktikak atzerrian egitea gura genuen eta Guatemala egokitu zitzaigun; 2005eko urtarriletik martxora egon ginen praktiketan.

**Eta nola sortu zitzaizuen liburutegia eraikitzearen ideia?**

Liburutegiaren beharra zegoela ikusi genuen, haurrek etxerako lanak egiteko lekurik ez zutela. Umeek etxerako lanak non egiten zituzten galdetu genien eta liburutegi bat egin gura zutela esan ziguten, baina proiektua ez zuen inork ere ez gauzatzen. Hala, gu hasi ginen liburutegia egiteko proiektua aurrera eramaten; Euskal Herrira etorri eta liburuak eta dirua biltzen hasi ginen.

**Dirua nola lortu zenuten?**

2005eko martxotik irailera bitartean egon ginen liburuak eta dirua biltzen. Hainbat eta hainbat liburu bidali genituen, itsasontziz. Dirua txartelak salduz eta Euskadiko Kutxa zein Fagorri dirulaguntzak eskatuz lortu genuen. Lagunek ere lagundu ziguten.

**Hasita daude liburutegia altxatzeko lanekin?**

Hasieran aldi baterako liburutegia egokitu genuen, hutsetik eraiki aurretik. Hasieran ez genuen dirurik eraikin berria altxatzeko eta lokal bat egokitu behar izan genuen. Hala ere, lokala ez zegoen egoera onean eta liburuak mantentzeko lekua ez zen aproposa: hainbat zulo zituen eta haizeak zein hezetasunak liburuak hondatzen zituen.

Baina ganorazko liburutegi baten beharra zegoela ikusita, Euskal Herria Liburutegia izeneko batzordea sortu genuen. Izan ere, Guatemalan halako lanak batzordeen bidez gauzatzen dira. Batzordeak presidentea, idazkaria, diruzaina... ditu; hau da, serio hartu dute liburutegiarena.

Oinarrizko dirua lortu ostean harrizko eraikin berri bat altxatzen hasi ziren eta egun lanekin jarraitzen dute. Liburutegi bat Guatemalan edo hemen egiteak ez du alderik; han izugarri eskertu dute aldi baterako liburutegi bat izatea eta are gehiago ganorazko bat bidean dagoela ikustea.

**Haziak zuek erein, baina fruituak eurak jaso ditzatela.**

Hala da. Behin eta berriz esan diegu laguntzeko gertu gaudela, baina liburutegia eurak atera behar dutela aurrera. Izan ere, ezin gara Euskal Herritik Guatemalara joan eta etorri ibili, ez gara-eta gobernuz kanpoko erakunde bat. Ez dugu dirurik. Hala ezinezkoa da jarraipen zuzena egitea. Hori bai, lanak nola doazen esaten digute; oraindik harremana mantentzen dugu.

**Noizko egongo da liburutegia?**

Ez dakigu, dirua falta da. Obrekin hastea izugarri kosta zitzaigun, aurrekontuak ematen ez zuelako. Guk, baina, lanekin hasi behar zirela esan genien, dagoen materialarekin zerbait egiten hasteko. Bestela ez zen sekula egingo. Ez dut uste aurten bukatuko dutenik, baina oso ondo antolatuta daude, eta oso pozik liburutegia aurrera doala ikusita.

**"Euskal Herria Liburutegia batzordea sortu genuen; halako lanetarako batzordeak sortzen dituzte"**

**"Ez dut uste aurten bukatuko dutenik, baina oso ondo antolatuta daude, eta oso pozik"**



Ainhoa Uriarte, Arrasateko Kulturateko liburutegiaren atarian JOKIN BEREZIARTUA

etxeko leihotik


Usoa Agirre > uagirre@goiena.com

## Ipotxa ala iPotxa, zein aukeratuko zenuke?

Egubakoitzean jarri zuten Euskal Herrian salgai Apple-en iPad famatua. Metalgintzako eta arte grafikoetako langileak greban, langabezia gora, soldatak behera, krisi hotsak nonahi... eta jende-ilarak 479 eurotik gorako *gadget*-a erosteko. Badirudi krisiak ere ezin duela Apple-ekin. Joan den astean, gainera, sagarraren enpresako kapitalak Microsoftena gainditu zuen lehen aldiz. Baina ez dut demagogia merkerik egin nahi, bakoitzak ikusiko du-eta zer egiten duen bere diruarekin.

Egubakoitzean bertan izan nuen iPad horietako bat eskuetan eta potxolada hutsa da, Apple-ek egiten dituen tresna guztiak moduan. Baina, oraingoz, muga asko ditu: tresnak dituen programen bidez eros eta irakur ditzakezu liburuak, eduki batzuetarako sarrera moztuta du... Apple-eko produktu gehienekin gertatzen dena gertatuko da iPadarekin ere; maitatu edo gorrotatuko duzu. Maite baduzu ordainduko dituzu 479 euroak, agian ez behar duzulako edo erabilgarria delako, baizik eta maite duzulako. Horixe daukate markek; ez dakigu zergatik, baina prest gaude ezaugarri antzerakoak dituzten bi produkturen artean garestiena erosteko, markagatik bakarrik. Baina markaren izen onari eusteko lan onak egin behar dira; aurrerago ikusiko dugu, beraz, ea esaten duten moduko iraultza dakarren iPadak.

**"Ikusiko dugu ea esaten duten moduko iraultza dakarren iPadak"**

**> Mundumira ere marka bat da, ondo funtzionatzen duen marka, gainera. Aurten lehen aldiz egin da jaialdia Antzuolan eta, aurrekontua txikitu eta egunak murriztu arren, ederki irten da. Markari eusteko ez dago lan ona egitea modukorik!**

**> Eurovision izen ezaguna dugu, baina aurten ezagutu dugu ibarrean Euskovision ere. Europako telebisten musika jaialdi horren aitzakian bildu zen Elgetako Espaloian lagun-talde *friki*-a. Ederki pasa zuten, iPad eta guzti.**

OSASUNA > JARDUNALDIAK

## Emakumeen osasuna hizpide izango da Gandiagan

NEREA MENOR > OÑATI

Egubakoitzean eta zapatuan egingo dituzte *Emakumeak eta osasuna* jardunaldiak.

Arantzazuko Gandiaga Topagunean izango dira 9:00etatik aurrera, bi egunetan. Psikiatriaren, ugalketaren, sexologiaren eta minbiziaren gainean arituko dira, besteak beste. Gai horien barruan, erditze naturala eta herentziazko minbizia aztertuko dituzte.

*Zaintzaile emearen rola* edo *Generoa, osasunerako erabakigarria* izeneko hitzaldietan gizarte eta kulturaren gainean arituko dira; eta horietan emakumeek betetzen duten lekua aztertuko dute.

**LEHENENGOZ IBARREAN**

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak –OEE– urtero antolatzen ditu Osasun Jardunaldiak, 1991.urteaz geroztik. Eta aurten lehenengoz izango dira Debagoienean. Ibarreko euskal hiztunen portzentaje handiak bultzatu du erakundea jardunaldiak gurean egitera, eta baita ere Gandiaga Topagunearen azpiegiturek eta inguru natural ederrak.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
MAIATZEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

UMEENTZAKO LIBURUAK
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

ELHUYAR-EN PANPINA ETA JOKUA
Bidali KLUBA PANPINA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
elhuyar.org/zoozoroa

SKUNK-FUNKEKO KAMISETA
Bidali KLUBA KAMISETA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

MUNDUMIRAKO MATERIALA
Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

SARI NAGUSIA
APIRILA-EKAINA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
GAU 1 TXOPEBENTA LANDETXEAN
• Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa. Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• *www.nekatur.net/txopebenta*
• *www.toprural.com*
Maiatzean 20 urte beteko ditugu; Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*



Abiadura Handiko Trenaren lanak aurrera doaz, zubiaren argazkiek erakusten duten moduan. JULIO CALLEJA

**AZPIEGITURAK** > ARAMAIORAKO BIDEKO LURJAUSIA

# Hilaren 20ra arte ez dira hasiko saihesbidearekin

Harri-lubeta egiten ari dira lurra eusteko; horren ostean hasiko dira errepidearekin eta bi zubiekin

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARAMAIO

Arrasatetik Aramaiorako bideko lurjausiak luzerako emango du oraindik. Aldundiak lurjausiaren tartea ekiditeko saihesbide txiki bat egiteko proiektua onartu zuen.

Horren aurretik, baina, eremua ziurtatu behar izan du Aldundiak, Aramaioko alkate Asier Agirrek jakinarazi duenez: "Errepidearekin ez dira hasiko eremua arriskutik kanpo izan arte, geologoek oraindik lurra behera etor daitekeela esan duteeta". Lurra eusteko harri-lubeta bat eraikitzen ari dira eta Agirrek adierazi du egon lubetak, errepidearen mailatik, 15 metroko altuera duela. Lanokin ekainaren 20an amaituko dute eta horren ostean hasiko dira saihesbidea egiteko obrekin.

ESANAK

**"Arriskutik kanpo izan arte ez dira hasiko; geologoek diote oraindik lurra behera etor daitekeela"**

**Asier Agirre** > Aramaioko alkatea

**NOIZ AMAITUKO, "IDEIARIK EZ"**

Bi zubi egokitu behar dituzte saihesbidea egungo errepidearekin lotzeko. Zubien egiturak kanpotik ekarri behar dituzte eta oraindik eskatu egin behar dira, aurrez egindakoak dira-eta. Saihesbide berriak 550 metro inguru izango ditu eta Untzillako bidegurutzea kokalekuz aldatuko dute, baita Untzillara doan zubia ere; zubi berria jarriko dute. Alkateak adierazi du obra guztia noiz amaituko den ez dela "inon" agertzen: "Aldundiak esan zuen gabonetarako amaituko dutela, baina ez da zertan horrela izan behar; obren arduradunek ez dute inon ez zehaztu".

Azkenik, bizilagunak honezkero "kokoteraino" daudela adierazi du alkateak.

**EKONOMIA** > METALGINTZAKO GREBA DEIALDIA

## Sindikatuen arabera jarraipena ia erabatekoa izan zen, eta enpresarien ustez "porrota"

Grebaren deitzaileen esanetan Eskoriatzan, Antzuolan, Bergaran, Oñatin eta Elgetan izan zuen jarraipen handiena deialdiak

**A.B.** > DEBAGOIENA

ELA, LAB eta CCOO sindikatuek greba deialdia egin zuten egubakoitzerako Gipuzkoako metalgintzaren arloko enpresetan. Beste behin ere, sindikatuek eta enpresariek ez dute bat egin grebak izan zuen jarraipenarekin. Grebaren deitzaileen esanetan jarraipena handia izan zen, "Debagoieneko herri gehienetan ia %100eko jarraipena". Adegik, berriz, egubakoitzean bertan adierazi zuen greba deialdia "porrota" izan zela.

**DEBAGOIENEAN**

LAB sindikatuak emandako informazioaren arabera, besteak beste, Eskoriatzako Tesa, Arrasateko Polmetasa, Bergarako Arcelor eta Candy-Hoover, eta Oñatiko Garai, Cegasa eta Txintxurreta enpresetako langileek egin zuten greba. Sindikatua pozik azaldu zen emaitzarekin eta azaldu zuen langileak lan eskubideak murrizteari aurka agertu zirela eta hitzarmen justua lortu arte sindikatuek lanean jarraituko dutela. CCOOek adierazi du, bestalde, langileen %90ak egin zuela greba, eta emaitza ikusita Adegik autokritika egin beharko lukeela.

**ENPRESARIEN USTEZ "PORROTA"**

Gipuzkoako enpresarien elkarteak oso bestelako irakurketa egin zuen grebaren gainean. Adegiren esanetan "porrota" izan zen, eta jarraipena %35ekoa. Adegirendako langileek sindikatuei eskatzen dietena da "kalera irten beharrean negoziazio mahaira bueltatzea".

# Datuek dena diote.

**GOIENKARIA**
> 30.000 lagunek irakurtzen dute astero Debagoienean, papereko bigarren irakurriena baino 10.000 irakurle gehiagok.*
> Goienkariak 34.000 irakurle ditu Gipuzkoan.

**GOIENA TELEBISTA**
> 8.000 lagunek ikusten dute egunero Debagoienean, iaz baino 2.000 lagun gehiagok.*

**GOIENA.NET**
> 2010eko lehen lau hilabeteetan 218.280 bisita izan ditu; iaz baino 67.077 bisita gehiago denbora-tarte berean. **

# Eta guk gauza bakarra: eskerrik asko.

*CIESek 2010eko lehen lau hilekoan egindako neurketa. ** Google Analytics-en bidez egindako neurketa.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Sabrina Pato bergarararrak hitzaldia egingo du ekainaren 3an Aretxabaletako Aste Berdearen barruan. *Elikadura ekologikoa* delako hitzaldia egingo du, 19:00etan, Arkupen. Pato Ekolapiko proiektuan murgilduta dago eta lan egiten dute haurtzaindegietan menu ekologikoak ezartzeko. Donostia inguruan dihardute, baina Debagoienera ere hasi dira hurbiltzen.

**Sabrina Pato** > Elikadura hezitzailea eta sukaldaria

# "Haurreskoletan menu ekologikoak bultzatzen ditugu Ekolapiko elkartean"

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

**Elikadura ekologikoa zer den eta haren onurak zein diren azaldu ditu Sabrina Patok. Dietista beharrean, elikadura hezitzailea deitzea nahiago duela dio. Uste du kanpoko itxurari asko erreparatzen diogula eta barruko osasunari, oso gutxi.**



Sabrina Pato elikadura hezitzailea eta sukaldaria. MONIKA BELASTEGI

**Zer da elikadura ekologikoa?**

Elikagai ekologikoak jatea; hau da, pestizida eta erbizida barik ekoiztutako elikagaiak eta, gainera, euren bizitza zikloa errespetatu zaiena. Baina ez hori bakarrik: elikadura arduratsua egitea ere bada elikadura ekologikoa. Hau da, bertako produktuak kontsumitzea, ahalik eta gertuen ekoiztuta daudenak eta garaikoak, sasoian sasoikoak jatea. Ardatza hori da: elikagai ekologikoak izatea, bertakoak eta garaikoak.

**Zein dira elikadura ekologikoaren onurak?**

Osasungarriagoa da. Nutrizionalki askoz aberatsagoa da. Hainbat azterketa dago esaten duena elikagai ekologikoek ur kopuru txikiagoa dutela eta ur gutxiago izatera, bada, nutriente gehiagorendako lekua dutela.

Bestalde, naturarekiko errespetagarriak ere badira, naturarekin errespetuan ekoiztu dira. Hitz batean osasungarriagoa da.

**Hortaz, zergatik ez dago oso hedatuta?**

Geroago eta gehiago entzuten da. Nik uste dut horren hedatua ez egotearen arrazoia dela ohituta gaudela produktu guztiak urte osoan barrena eskuratu ahal izatera, eta elikadura ekologikoan, berriz, garaian garaikoa dago. Hortaz, produktu gutxiago dagoelako ustea du jendeak. Hala eta guztiz ere, bagoaz jabetzen hobeak eta aberatsagoak direla; kontzientziatzen goaz produktu naturalak izatea askoz hobea dela gure osasunarendako.

**Beste arrazoietako bat izan daiteke halako elikagaiak garestiagoak izatea, ala mitoa da hori?**

Pixka bat garestiagoak badira. Bai ekologikoak zein Eusko Labelekoak, baina hori da euren bizi zikloa errespetatu egiten delako. Oilasko batek, esaterako, lau hilabete behar baditu hazteko, bada, ekoizlearendako kostu handiagoa dauka bi hilabetean haziarazitako oilaskoak baino. Gainera, prozesua luzeagoa izatera, gutxiago ere ekoizten da. Horregatik guztiagatik dira garestiagoak, baina ez askoz gehiago. Nik esango nuke erosketa karrutik biziotxoak kenduz gero, konpentsatu egin daitekeela.

**Garaian garaiko produktuetan oinarritzen dela kontuan izanda, erraz egin daiteke aste osorako menu bariatua?**

Duda barik. Ohitura falta da. Esaterako, badirudi ez dakigula egiten entsalada bat tomate barik, eta orduan neguan zer? Bada, egin dezakegu entsalada mahaspasekin, kontserbatutako artoarekin, eskarolarekin, azenarioarekin... badut entsalada eginda. Ikastea da kontua, eta horretarako borondatea jartzea.

*Des-ikasi* bezala egin dugu, gaur egun urte osoan supermerkatuetan denetarik daukagulako. Eta bat batean aukera hori kenduz gero, bada, badirudi motz geratuko garena, baina ez, saiatuz gero, ikasiko dugu neguan posible dela entsalada on bat jatea tomaterik barik.

ARDATZAK

**"Elikadura ekologikoaren ardatzak dira produktu ekologikoak izatea, bertakoak eta garaikoak"**

OSASUNA

**"Elikadura ekologikoa osasungarriagoa da; nutrizionalki askoz aberatsagoa"**

JATEKO OHITURAK

**"Nahiko gaizki jaten dugu: barazki, fruta eta karbohidrato gutxi eta prestatutako jaki asko"**

**Oro har, nola jaten dugu?**

Nahiko gaizki jaten dugu. Barazki eta fruta oso gutxi jaten dugu; gure energia iturri izan beharko liratekeen karbohidrato oso gutxi jaten dugu –pasta, arroza, ogia...–, eta gainera zuriak, integralak beharrean; eta jaten dugu gantz eta azukrez jositа dagoen prestatutako janari asko. Bestalde, joera dugu haragia ia egunero jateko, eta ez da beharrezkoa.

**Horren guztiaren ondorio da geroago eta ume gizen gehiago egotea?**

Umeen arazoa dira jateko ohitura oso txarrak daudela, gurasoen denbora falta eta sedentasrismo gero eta handiagoa.

**Ekolapiko taldeko kide zara eta Mundumiran ere izan duzue postua. Zein da haren zeregina?**

Biolurren baitan sortu den proiektu bat da Ekolapiko eta bultzatzen duguna da haurreskoletan menu ekologikoak. Hau da, bertako eta garaiko produktuekin menu orekatuak eskaintzea da gure helburua.

Donostia inguruan egiten dugu lan batez ere. Bost hautzaindegitan dagoeneko menu ekologikoa bazkaltzen dute eta beste bost sartzeko prest daude.

Andaluzian, esaterako, 105 eskolatan bazkaltzen dute menu ekologikoa egunero. Eta bi ospitaletan gosaria eta merienda ekologikoak banatzen dituzte. Gu atzetik goaz, oso atzetik arlo honetan.

**Debagoienera hurbiltzeko asmorik baduzue?**

Horretan dihardugu, udaletxe eta eskolekin harremanetan, izan ere, nahiko genuke Debagoienean behintzat haurtzaindegi baten hasi menu ekologikoekin. Dugun arazo nagusiena da sukaldea izan behar dutela eta gainera bertan kudeatu behar dutela; eta gaur egun gehienak *catering* enpresa bidez antolatzen dira. Eta hori traba handia da.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

• Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
• Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
• Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
• Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
• -%20 elikagai-intolerantzia proban.
• -%10 mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
• -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
• **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
• **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
• Ordezkapeneko autoa 20 euro.
• Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
• Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
• **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
• **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
• **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
• **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
• **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
• **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
• **-%10** zerbitzu guztietan
• **-%15** inplanteetan.
• 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
• Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
• **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
• **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
• Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
• **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
• Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

**kale inkesta**

# Zer iruditzen zaizu politikariak erakusten dabiltzan jarrera krisiari aurre egiteko?



**Asier Ezenarro**
Langilea
Eibar

AEBtako lobbiek mugitzen dituzte finantzak. Europa soziala atzera doa eta ikusten dira bi bloke: Alemania, Suedia… ondo prestatuta daudenak; eta ekonomia espekulatiboak (Espainia, Grezia…) txarto prestatuta daude.



**Felix Moraza**
Pentsioduna
Bergara

Gaizki, beti behekoek ordaintzen dugu, eta hori ez dago ondo. Semeari mesede egiteko, gutxiago geratu zitzaidan; baina orain ikusten dut nirea behera doala eta bizitza maila gora doala. Gurea ez dute igotzen.



**Miguel Castillejo**
Pentsioduna
Bergara

Txarto dabiltza, eurek larregi irabazten dute, 7.000-8.000 euro; gu 1.000rekin isildu egin behar, eta gainera, kendu egiten digute. Gure lobei lagundu beharko diegu, eta horretarako gurea zaintzea komeni.



**Maite Plazaola**
Ikaslea
Bergara

Errazenera jo dute; kaltetuak beti gara berak: langileak, herritarrak… Dabiltza esaten egoera oso txarra dela, eta azkenean guri pasatu digute pilota: guk hartu behar dugu parte hori guztiori konpontzen.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

LEINTZ GATZAGA
**> Semaforoaren gaineko iritzi kontrajarriak**

Zeresana eragiten dabil Leintz Gatzagako errepidean ipini duten semaforoak. Irakurle batek baino gehiagok deitu du esateko "zirkulazioa moteldu" besterik ez duela egiten eta semaforoaren helburua dela gidariak AP-1 autobidetik bidaltzea. Beste batzuk, berriz, uste dute ideia ona izan dela: "Nik nahiago dut semaforoa izatea, bihurgune handi horretan beldurrez gidatzen ibiltzea baino".

BERGARA
**> Belar luzeegiek gidatzea zaildu egiten dute**

"Candyn lan egiten dut eta azkenaldian saihesbidera irten behar izaten dudanean goitik autorik datorren ikustea kosta egiten zait". Horixe kontatu dute. Labegaraietako irteeratik saihesbidera irteteko dauden belarrak luzeegi daudela, eta oso aurrera joan behar izaten dela autorik badatorren ikusteko. "Egunotan ikusi ditut langile batzuk belarra mozten, baina ez dakit horra ez diren ailegatu edo ahaztu egin zaien".

ARRASATE
**> Autobus geralekua oraindik konpondu barik**

Martxoko haizealdiak Eroski hipermerkatuaren pareko autobus geralekuaren kristala apurtu egin zuen. Bada, horren kontura deitu du irakurle batek esanaz aurreko astean "melatu ederra" hartu zuela autobusa itxaroten zegoela, markesina konpontzeke egon eta euria barruraino sartu zitzaiolako.

**usteak uste**

Maider Arregi

# Facebooken amaiera ote?

Facebook beste behin albiste da. Asko dira sare sozial erraldoiaren amaiera gertu ikusten dutenak. Izan ere, sare sozialen pribatutasunarekin kezkatuta daudenak erabiltzaileen datu pribatuen salerosketa salatzen dihardute aspalditik. Ba oraingoan *The Wall Street Journal* egunkariak egindako ikerketak agerian utzi du Facebook. Ikerketa horren arabera, sare sozial horiek beraien erabiltzaileen datu pribatuak saltzen dizkiete publizitate konpainiei. Gure datu pribatuak edozeinen eskura.

Teketen blogariak idatzitako *post* batean, Facebooken aurkako *zibermatxinada* hasia dela irakurri berri dut. Hala, gaur maiatzaren 31, Facebook uzteko eguna deitu dute. Bakoitzak erabaki behar du orain, bere identitate digitala non islatu nahi duen.

Eta zuk, utziko duzu Facebook *adikto* izateari?

**zorroztailea**



Joxemari Muxika

# Gutxiengoaren gehiengoa?

"Jaurlaritzak aurtengo maiatzaren 10etik 20ra egin zuen galdeketa. Ikerketaren iritzi bilketa Espainiako Gobernuak defizita murrizteko neurriak aurkeztu zituenean eginda dago, eta horrek emaitzetan eragina izan dezakeela uste dute lehendakaritzan."

Berria > 2010-05-29


PSE ziur dago hezkuntza planerako ituna bihar itxiko duela EAJrekin


Maiatzaren 10etik 20ra Eusko Jaurlaritzaren Soziometroak jendearen boto asmoari buruz inkesta egin du EAEn. Egun horietan botazioa egin izan balitz alderdiek bildutako boto kopuruak beherakada izango luke orokorrean.

Boto itxaropen inkestaren emaitza hau izan da: UPyDk 0'9; EAk 1'6; EBk 2'2; PPk 4'1; Aralarrek 4'5; PSE-EEk 14'7 eta EAJk 20'2. Gainerako alderdiei buruz ez dute galdetu. Beraz, existituko ez balira bezala. Ez diren horien botoek, abstentzio teknikoa osatzen dutenek eta politikoekin konfiantzarik ez dutenek %51'8 osatzen dute. Bada zerbait.

Hori irakurritakoan hainbat galdera sortu zaizkit. Zenbat boto bilduko lituzkete gaur Eusko Jaurlaritzan agintzen dutenak? Batuketa eginez gero bi alderdien artean boto populazioaren % 18'8. Ez al zaizue iruditzen UPyD-renak batuta, 5 bototatik 1-era iristen ez den ordezkaritza dutenen agindüetara egotea triste antzekoa dela? Horixe da abertzale ez omen diren baina estatuarekin estu lotuta dabiltzan nazionalistek duten ordezkaritza. Gainera harro azaltzen dira.

**"Zenbat boto bilduko lituzkete gaur Jaurlaritzan agintzen dutenak? %18'8... euskal autonomia gehiagoren aldeko alderdiek? %28'5 "**

Eta zenbateko boto itxaropena dute euskal autonomia gehiago izatearen alde daudela esaten duten alderdiek? Kalkuluan beste guztiak sartuz guztira %28'5 osatzen dute, hau da, 4tik bat pasatxo. Batzuek eta besteek dituzten boto kopuruaren artean aldea dago. Demokraziaren irizpideekin ados egonik, botoen balioez baliatu behar da. Gauzak bere tokian jartzeko kapaz izango ote dira gure ordezkari politikoak?

Badirudi partiduek ez dutela sinesgarritasunik, ez dutela botoa eman arazteko jendea erakartzen. Eta zer egiten dute partiduko pertsonek? Horiek partiduak ezabatu egiten ditu. Ez dute agindüak betetzea beste erremediorik. Beharbada alderdiak pittin bat alboratzea eta pertsonei balioa ematea komeni da bizi dugun egoera politikoa konpontze bidean zerbait egin ahal izateko.

Zerbait egin beharra dago, bestela, txoriek baratzeko ortuetan egiten duten bezala gutxiengoaren agintaritza honek kaltea egingo du bizi garen jendartean.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Ubane Madera **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Edu Mendibil, Maider Arregi Eta Arritxu Barruso **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Diru galera estaltzeko bazkideen ekarpena AED, Ekin eta Txatxilipurdiren artean banatu behar **> 14**



**> OÑATI**
Jose Errastiren lekukoa hartu, eta Fernando Diaz izango da San Migel, domekan **> 18**



**> ELGETA**
Tratamenduan daudenei, jarraipen zerbitzu berria eskatzea erabaki du herriko Udalak **> 20**

**ARAMAIO** > PATXI URIBARREN EUSKALTZAINAREN SARRERA HITZALDIA

# Belaunaldien arteko transmisioaren garrantzia azaldu zuen Uribarrenek

**SARRERA HITZALDIA**
Aramaioko San Martin elizan euskaltzain oso izendatu zuten barikuan Patxi Uribarren

**AURPEGI EZAGUNAK**
Euskalgintzako eta kultur arloko aurpegi ezagun asko batu ziren Aramaion





Ezkerrean, Torrealdai eta Zabaleta euskaltzainak eta Haritschelhar euskaltzain emeritua; eskuman, Urrutia euskaltzainburua, Uribarren bera, Urgell sailburua eta alkatea. A.B.

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Patxi Uribarrenek (Aramaio, 1942) Henrike Knörr zenaren lekua hartu du Euskaltzaindian. Bariku arratsaldean egin zuen sarrera hitzaldia eta Aramaioko San Martin eliza txiki geratu zen. Kultura arloko aurpegi ezagun asko batu ziren bertan; besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohia, Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Patxi Zabaleta, Joan Mari Torrealdai, Lourdes Oñederra eta Ana Toledo euskaltzainak eta Txipi Ormaetxea hizkuntzalaria. Horrez gain, asko izan ziren San Martin elizara hurbildu ziren aramaioarrak, herriko semea euskaltzain oso nola izendatzen zuten ikustera.

Asier Agirre Aramaioko alkatearen eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren ongi etorriaren ostean, Lourdes Oñederra eta Sagrario Aleman euskaltzainek lagunduta, Patxi Uribarren San Martin elizako aldarera igo zen euskaltzain oso egingo zuen sarrera hitzaldia egitera.

**BELAUNALDIZ BELAUNALDI**

*Zirelako gara, garelako izango dira* izenburuarekin euskarak Aramaion izan duen bilakaera azaldu zuen Uribarrenek bere hitzaldian, transmisioari buruzko gogoeta eginez. Lehenengo hitzak, baina, Herrike Knorri eskaini zizkion "jakintza entziklopedikoaren jabe" zela esanez. Hitzaldiaren amaiera, bestetik, Euskal Herri osoan euskararen alde diharduten erakunde eta pertsonen lana eskertu eta euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu zuen eta azpimarratu zuen "aurreko belaunaldietatik jaso dugun euskara etorkizuneko belaunaldiei eskaini" nahi diela.

Sarrera hitzaldiaren osteko ohiko erantzuna Jose Luis Lizundia euskaltzainaren ahotik etorri zen, *Ganbarruetatik Araba euskaldunera* hitzaldiarekin, Uribarrenen lizentziaturako tesiari edo Aramaioko *Gainbarruko Toponimia* lanari erreferentzia eginaz.

Hitzaldien ostean, eta euskaltzain berriak Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina eta diploma eman zizkion Uribarreni.

**ARAMAIOARREN BEROTASUNA**

Aramaioko herriak ere seme kuttuna zoriondu nahi izan zuen. Patxi Uribarrenek hainbat opari jaso zituen: Bizente Goikoetxea abesbatzarena, Aramaioko Udalarena, familiarena, Txirritola elkartearena eta Lagun Artean dantza taldearena.



**Andres Urrutia**
Euskaltzainburua

"Aramaiok badauka bere zapore berezia, bere euskalduntasuna. Euskaltzaindiak hainbat bilera eta ekitaldi egin ditu hemen eta zentzu horretan beti bultzatu izan du euskararen presentzia Araban".



**Ana Toledo**
Euskaltzaina

"Patxi Uribarren euskaraz bizi izan den pertsona da eta bizitza guztia euskara lantzen jardun duena. Horregatik seguru nago aurrerantzean oso ekarpen garrantzitsuak egingo dizkiola Euskaltzaindiari".

## "Euskararen egoera itxaropentsua da"

"Nahiz eta erabilerak badituen bere arazoak Aramaion ere, itxaropenerako indarrak daudela uste dut, talde eta pertsona asko ari dira-eta euskararen alde lanean. 1971n Euskaltzaindiak Aramaion egindako bileran Aramaioko euskararen egoeraren inguruan hitz egin behar izan nuen eta orduan egin ninduten urgazle. Urte batzuetara hemen naiz berriro ere eta ea jendea animatzen dudan euskaraz hitz egitera. 1971tik zenbait gauza aldatu diren arren mezua berdina da: euskarak bizi nahi badu jendeak erabili egin behar du".



Patxi Uribarren. J.C.

**GIZARTEA** > ERRETIRATUEN EGUNA ARRASATEN

# Bizipoza eta parrandarako gogoa, nagusien egunean

"Guztia zor diot herri honi", nabarmendu zuen Marina Sanchez ehun urtetik gorako emakumeak

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Egun batez herriko nagusiak gaztetu egin ziren, SUDC elkartearen Erretiratuen Egunari esker. Mahai bueltan 820 erretiratu elkartu ziren zapatuan Musakolako kiroldegiko kantxan. Batzuk adinean aurrerago, beste batzuk haiei jarraika, baina guztiek zuten ezaugarri komun bat: parrandarako gogoa. Kantuan eta umoretsu, esker onez onartu zituzten kantaldi, dantzaldi eta opariak.

**OMENDUTAKOEN ESANAK**

Hunkitu egin ziren, berriz, Marina Sanchez (Salamanca, 102 urte abuztuan) eta Ladislao Ginaldo (Salamaca, 99 urte), nagusienak izatearren jasotako omenaldiarengatik.

"Elmako ugazaben etxean lanean ibili ostean, urte askoan gozokiak saldu izan ditut kioskoan, Portaloian; eta nire senarrak pipak saltzen zituen zinema sarreran. Dudan guztia zor diot herri honi", kontatu zuen Marina Sanchezek.

"Nik bakarrik eskatzen dut urtetik urtera aurrera egitea, urte asko hartzeko nire sekretua bizi-gogoa da", adierazi zuen, berriz, Ladislao Ginaldok.



Sanchez eta Ginaldo (erdian), eskuman alkateordea eta alkatea, eta omenduen alboetan, danborradako bi banderadun. U.M.




Marina Sanchezen familiako hiru belaunaldi Erretiratuen Egunean: bera (erdian), alabak (alboetan), loba eta birlobak. U.M.

**PARTE-HARTZAILEEN IRITZIAK**



**Juan Luis Arkauz**
SUDC elkartea

Beste urte batzuetan baino gutxiago etorri dira, baina jai alaitasuna dago, oso giro polita eta ederki gabiltza guziok.



**Karmen Oruna**
Erretiratua

Oso ondo pasatzen dugu, penak ahaztuta. Niri den-dena gustatzen zait, baina musika gehien. Urte mordoan etorri naiz.



**Feli Villar**
Erretiratua

Lau urteotan etorri barik egon naiz; aurten etorri egin naiz eta oso pozik nago. Merezi dute eskertzea antolaketa lan guztiau.



Ladislao Ginaldo bere bi alaba eta semearekin, Erretiratuen Egunean. U.M.





ARGAZKIAK: MIRARI ALTUBE

## Udaberriko Jai mitologiko eta berezia

Azkonarra, Kukua, Mari eta Argitxo lagun zituztela, 260 neska-mutiko eta gurasok parte hartu zuen Arizmendiren Udaberri Jaian, Aretxabaletan. Gozatzeaz gainera, ikasi ere ikasi zuten, besteak beste, ikusi zuten-eta zela bilakatzen den zuku 60 kilo sagar, Aramaioko ASE sagarzaleen elkartekoen eskutik. Talo tailerra, mendi ibilaldia, ipuin kontaketa, jolasak, herri bazkaria... egun borobila, zapatuan izan zutena.

**OSPAKIZUNA** > HAUR DANTZARI EGUNA

# Ilusioa nagusi dantzari gaztetxoen artean

Urduritasuna alde batera utzita, Oñati, Soraluze, Arrasate eta Aretxabaletako 200 bat haur dantzarik, erakustaldi polita eta hunkigarria eskaini zuten Herriko Plazan

**MAIDER ARREGI** > ARETXABALETA

Euriaren mehatxuari aurre eginez, kolorez jantzi zen domekan Aretxabaleta. 200 haur dantzari pasatxok ikustaldi polita eskaini zuen guraso, lagun eta senitartekoen aurrean. Urduritasunak alde batera utzita, Leizarra taldekoak irrikaz zeuden plazara noiz irten. "Asko entseatu dugueta. Oso ondo pasatzen dugu eta gainera lagunak egiten ditugu".

Loramendi Dantza Taldearen erreleboa Leizarra musika eskolak hartu du aurten. Mariatxen Urkia, Leizarra taldeko kideak pozik azaldu da Haur Dantzarien Egunak izandako harrerarekin: "Gogor egin dugu lan ekitaldi hau berreskuratzeko eta aurrera ateratzeko. Gurasoen parte hartzea handia izan da eta benetan, pozik gaude izandako harrerarekin".

**DATOZEN HITZORDUAK**

Jarraian dituzue dantzari gaztetxoak batuko dituzten hitzorduen berri: Soraluzen, ekainaren 6an, Arrasaten, ekainaren 20an, eta Oñatin, irailaren 19an.


Soraluzeko Urrats taldeko gaztetxoak gustura, alardea egiteko gertu.


Makila dantzan, fin aritu ziren Txikitxu eta Leizarrako gaztetxoak.


Eguerdian, txikitxoenek egin zuten alardea Herriko Plazan.


Lore Gazteak eta Oñatzeko dantzariak ere gustura, alardean. ARGAZKIAK: MAIDER ARREGI

**JAIALDIA** > EUSKOVISION

## Erantzun ona izan du Euskovisioneko aurtengo hitzorduak Espaloia Antzokian

Bigarrenez egin dute Euskovision jaialdia. Oraingoan, baina, Espaloian egin dute hitzordua eta arrakastaz gainera

**M.A/JON BEREZIBAR** > ELGETA

Iaz, lehen aldiz egin zuten Euskovisioneko hitzordura joateko deia. Hasieran, esperimentu bezala jaio zena, aurten ezinbesteko hitzordu bilakatu da askorendako. Hala, Eurovisioneko jaialdia oinarri, sarean eta euskaraz jarraitzeko alternatiba aparta izan zen Elgetako Espaloia Antzokian zapatu gauean.

Jaialdia ikusiz, iruzkinak egiteko gunea jarri zuten *sustatu.com webgunean*. 15 lagun inguru batu ziren Espaloian bertan, eta 30 bat aritu ziren *txat*-eatzen. Bi pantaila erraldoi antzokiaren erdian: batean jaialdia zuzenean, eta bestean, berriz, parte hartzaileen iruzkinak. *Txat*-a, umoretsua eta iritziz beteta. Espaloiak ekarri berri duen iPad-a erabiltzeko aukera ere izan zuten bertaratutakoek.


Pantaila aurrean, Espaloitik zuzenean jaialdia jarraitu zutenak. JON BEREZIBAR



**EUSKALGINTZA**> BATZAR NAGUSIAK

# Diru galera estaltzeko bazkideen ekarpena behar



Eñaut Muxika, AEDko presidentea Kulturaten berbetan; atzean, Ekin Emakumeak elkarteko ordezkariak. UBANE MADERA

Kontu ekonomiko negatiboak aurkeztu zituzten AED, Ekin eta Txatxilipurdi elkarteek zapatuko batzar nagusian, bereziki, laguntzen jaitsieragatik

**UBANE MADERA**> ARRASATE
Momentuko likidazio arazoei aurre egiteko bazkideen ekarpena euskalgintzako hiru elkarteen artean banatzea.

Horixe da zapatuko batzar nagusian AED, Ekin Emakumeak eta Txatxilipurdi elkarteek bazkideei proposatu eta haiek onartu zutena.

Izan ere, hiru elkartetik hirurek zuloa aurreikusi dute 2010erako ekonomia kontuetan: AED elkarteak ia 22.000 eurokoa, Ekin elkarteak 7.400 euro pasakoa eta Txatxilipurdik 30.000 eurokoa.

Hala ere, hiru elkarteen artean bada desberdintasunik. Izan ere, AEDk eta Ekinek iazko defizita estaltzeko eta aurtengo jarduna ordaintzeko erabiliko dute bazkideen ekarpena. Txatxilipurdi elkarteak, berriz, iaz irabaziak izan zituen, eta horri esker, bazkideen ekarpena gordetzeko aukera dauka, ustekabekoendako.

**LAGUNTZEN JAITSIERA NABARMENA**
Euskalgintzako hiru elkarteen likidezia arazoen arrazoi nagusia krisia da; kasu honetan krisiak eragindako dirulaguntza jaitsiera, arlo publiko zein pribatuan.

Batzarrean emandako datuen arabera, arlo publikoan (Diputazioa, Jaurlaritza eta Udala) 109.000 eurotik 89.000 eurora jaitsi dituzte 2010erako aurreikuspenak. Eta arlo pribatuan, 10.800 eurotik 3.500 eurora.

Baita ere, jakinarazi zuten "egoera horri zela aurre egin daitekeen aztertzeko batzorde berezia osatu gura" dutela.

**LOKAL KONTUAK**
Diru kontuez gainera, lokal kontuek ere hartu zuten zapatuko batzarraren zati handi bat. Arrazoia da Arrasateko Udalak gura duela gaztelekua ipini euskalgintzako hiru elkarteen oraingo lokalean, Pablo Uranga 8an. Horrek esan gura du elkarteek handik joan egin beharko dutela.

Txatxilipurdi elkarteak badauka lokal berria: Nafarroa etorbidean, Udaltzaingoaren egoitzaren gaineko aldean. Udalak hala proposatu eta elkarteak onartu egin zuen.

AEDk eta Ekinek, berriz, erdigunean behar dute lokala, baliabiderik ez dutelako urrunagoko lokal batek eskatzen duen funtzionamendurako. Hala, Udalari eskatuko diote gaur egungo lokalaren parekoa egokitu dezatela eurendako, Pablo Uranga 4, hain justu. Edozelan ere, elkarteko ordezkariek azpimarratu zuten krisiak eraginda, seguru aski Udalaren asmoak atzeratu egingo direla, tartean gaztelekua egiteko proiektua.

GASTU MURRIZKETA

## Gastu txikiagoak eta zerbitzu bera

AED, Ekin eta Txatxilipurdi elkarteek dituzten likidazio arazoek baina, ez dute eraginik izango gizarteari eman gura dioten zerbitzuan. Orain arteko jarduerei eusten ahaleginduko direla esateaz gainera, jarduera berriak aurkeztu zizkieten bazkideei zapatuko batzarrean. Nabarmentzekoa da, adibidez, gazteak erakarri eta haien partaidetza lortzeko egin gura duten ahalegina. Adibidez, Sanjuanetan bukatuko den bazkide kanpainaren helburuetako bat da gazteak erakartzea. Horrez gainera, bereziki gazteei zuzendutako ekimenak aurkeztu zituzten. AEDk, esaterako, Kimu Berriak izenarekin, gazte taldea sortu gura du, eta besteak beste, kaleko euskara, argota sortzeko ahalegina egin gura du.

**INGURUMENA** > AGENDA 21

# Pobrezia, bidezko merkataritza eta oro har, gizakion arteko berdintasuna, ikasleen kezkak

Ekitatearekin lotutako proposamenak bideratu dizkiete herriko agintariei 2.040 ikasleren ordezkariek


Ikaslea proposamenak irakurtzen, parean ia udal agintari guztiak dituela. U.M.

**U.M.** > ARRASATE
Ekitatea, berdintasuna landu dute aurten Arrasateko 6-18 urte bitarteko eskola publiko eta pribatuko 2.040 ikaslek Agenda 21 programaren barruan. Hori oinarri hartuta, ekitatea bultzatzeko proposamenak aurkeztu zizkieten Arrasateko agintariei osoko bilkura berezian, eguenean.

**ABERASTASUNAREN BANAKETA**
Esaterako, datu ikaragarria helarazi zieten: 2025. urtean bi mila milioi lagun pobrezia larrian egongo direla munduan.

Hala ere, Arrasateri dagokionez, herriko Udalari proposatu zioten ekitatea bultzatzen diharduten gobernuz kanpoko erakundeei laguntza ematea, eta haiek "herritarrei hurbiltzea" eta baita ere, "herrialde pobreetarako diru kantitate bat erreserba" dezala herriko aurrekontuetatik.

Ildo beretik, "bidezko merkataritza ondo ezagutarazteko ekintzak antolatzea eta udal instalazioetan bidezko merkataritzako produktuak erabiltzea" ere proposatu zuten. Eta besteak beste, etxeko lanen "banaketa ekitatiboa" izateko, formazio ikastaroak eskatu zituzten.

**ZERBITZUAK** > ZUHAITZEN EGOERA

# Markuleteko makalak jausteko arriskuan

Arriskua ikusita, zortzi makal bota egin behar dituela erabaki du Udalak

**U.M.** > ARRASATE
Markuleten, erreka ondoko oinezkoen pasealekuko makalak bota egingo ditu Udalak, eta beste zuhaitz batzuk landatu. Kontua da, jausteko arriskuan daudela makalok, sustrai txikiegiak dituztelako (leku faltarengatik); eta jausiz gero, oinezkoen pasealekura jausiko lirateke. Hori berori gertatu zen maiatzaren 3an. Zerbitzu Sailetik esan dutenez, bost metro garai baino gehiago ziren bi makal pasealekura jausi, eta espaloi eta baranda zatia apurtu zuten. Hori ikusita, erabaki du Udalak gainerako zortzi makalak botatzea.


Pasealekuan agerikoak dira erorketak eragindako ondorioak. U.M.

Amaia Albes eta Ane Garai > Moda diseinatzaileak

# "Desfilearekin, ezagutzera emateaz gain, herriari bestelako ekitaldi bat eskaini gura diogu"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Ekainaren 19an Amaia Albes eta Ane Garai (Arrasate, 1987) moda diseinatzaileek desfilea egingo dute 3 aretoan; ezohiko proposamena musika areto batendako. Diseinatzaileek, baina, "horretarako egin-da" dagoela ematen duela diote. Eurekin egon gara, jantziak prestatu dituzten txokoan bertan.**


Ane Garai eta Amaia Albes, desfilerako jantziak prestatu dituzten txokoan. J.B.

**Nondik sortu zitzaizuen desfile bat egiteko ideia?**

Ikasketak amaitu eta sei hilabeteko ikastaroa egin genuen eta horren ostean zerbait egitea bururatu zaitzaigun, ikasitakoa aurrera eramateko. Hala, desfile bat egitea pentsatu genuen, zerbait sortzea, hain zuzen.

**Jantziak zuek egin dituzue?**

Patroiak atera, jantziak moztu eta josi, guk egin dugu guztia. Jantziak egiten bi hilabete eman ditugu; 22 jantzi dira eta 15 modelok desfilatuko dute. Modeloak lagunak eta senitartekoak izango dira; dena etxean geratzen da.

**3 aretoa leku aproposa da moda desfile baterako?**

Erabat, horretarako prestatuta dagoela dirudi. Oso leku aproposa eta polita da; hori bai, pasarela bat jarri beharko dugu lokaleko alde batetik bestera.

**Pasarela hori beste egunen baten erabiltzeko asmorik bai?**

Desfilearen helburua da moda munduan gure burua ezagutaraztea, baina baita jendeari erakustea Arrasaten bestelako proposamenak ere badaudela, sorkuntza aldetik ezberdina dena. Oraingoz, lehena da eta ikusiko da nola irteten den. Ea jendeak ondo erantzuten duen eta zerbait saltzen dugun, arropak ez ditugu-eta armairuan hautsa har dezaten egin. Espero dugu aurrerantzean ere beste desfileren bat egiteko aukera izatea.

POLITIKA > ELKARTASUN EGUNA

# Bost urte beteko ditu presoen aldeko aldarrikapen egunak

## Portaloira Topaguneak bihar aurkeztuko du aurtengo egitaraua, udaletxean, 19:30ean

J.B. > ARRASATE

Portaloira Topaguneak bosgarrenez antolatuko du Elkartasun Eguna, euskal presoen egoera eta bereziki Arrasateko presoek bizi duten "egoera larria" salatzeko aldarrikapen eguna. Euskal Herriko preso kopurua inoizko altuena dela salatu du Portaloirak: egun, 735 preso daude.

Horrez gain, sakabanaketa politikak 21 urte bete dituela gogora ekarri dute eta bisitetan senide eta lagunek jasan behar izan dituzten "miaketa umiliagarriak" gogor kritikatu dituzte. Diotenez, miaketok komunikazio eskubidea "larriki" urratzen dute.

**LARRIKI GAIXORIK DAUDENAK**

Gainera, Portaloira taldeak larriki gaixorik dauden presoen askatasuna eskatu du, beste behin. Bereziki, Jon Agirre, Josu Uribetxeberria eta Jose Ignacio Gaztañaga presoak etxeratzea eskatu dute. Presoen "egoera larria" gainditu eta presoen senideen eskubideak aldarrikatzea helburu, "denok gure aletxoa" jartzea beharrezkoa dela uste du elkarteak.

Hala, ekainaren 5ean egingo den Elkartasun Egunean parte hartzera gonbidatu dituzte herritar guztiak. Egitaraua bihar aurkeztuko dute, udaletxean, 19:30ean.


Iazko egitarauaren aurkezpena; aurtengoa bihar izango da, udaletxean. GOIENKARIA

JAIAK > SANJUANAK

# Egubakoitzean amaituko da kaleko salmenta posturako dokumentazioa aurkezteko epea

## Zozketa bidez 41 postu banatu ditu Udalak; postua eskuratzeko, dokumentazioa eta ordainagiria aurkeztu behar dute eskatzaileek


Kalez kaleko salmenta postua. GOIENKARIA

J.B. > ARRASATE

San Juan jaietan kalez kaleko salmenta postua jartzeko behin-behineko baimena eman du Udalak, zozketa bidez. Aurten 41 postu jarriko dituzte eta postuok Garibai eta Kontzezino kaleetako 270 metro hartuko dituzte.

Esandako moduan, Udalak emandako baimena behin-behinekoa da; izan ere, salmenta tokia eskatu dutenek beharrezko dokumentazioa eta ordainagiria –hartuko diren metroen arabera; metro koadroak, 27,84 euro– aurkeztu beharko dute, ekainaren 4a baino lehen. Hala, egubakoitz aurretik behar diren agiriak aurkeztu ez badira hurrengo interesatuari pasako zaio baimena. Dokumentazioa faxez aurkezteko aukera dago: 943 25 20 86.

**ESKULANGINTZA NAGUSI**

Postua egokitu zaienen artean, eskulangintza da nagusi, eta eskulangintzaz gain, bitxigintza eta ehungintza postuak dira gehien agertzen direnak.



UDAL EUSKALTEGIA

# Udal euskaltegia, Mintza Egunera

Mintzapraktika egitasmoak eta Topagunea euskara elkarteen federazioak antolatuta, Mintza Eguna izango da Arrasaten. Domekan izango da, ekainak 6, eta egun osorako egitaraua prestatu dute.

Bada, Arrasateko Udal Euskaltegiko ikasleek bat egin dute jaiarekin; euskaltegiko ikasleek ere dantzan jarriko dituzte mingainak.




Irabazleak eta lau omenduak zapatuan, Udal Pilotalekuan. JULIO CALLEJA

**EUSKARA** > LEHIAKETA

# Lau herritar omendu dituzte Koldo Eleizalde lehiaketako sari-ematean

Jon Balentziaga, Juan Martin Elexpuru, Esteban Antxustegi eta Miguel Angel Elkoroberezibarri urte askoan egindako lana eskertu zieten

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Zapatuan jaso zuten saria Koldo Eleizalde lehiaketako irabazleek. Udal Pilotalekuan izan zen ekitaldia, zapatu eguerdian, eta, ohi bezala, musika, bertso eta kantu artean jaso zuten saria irabazleek.

Pozik daude antolatzaileak –Udaleko Euskara Zerbitzua– aurten izan duen erantzunarekin. Hain justu ere, 675 lan jaso dituzte, sei generotan banatuta: ipuin idatzia –461 lan–; bertsoa, 12; komikia –87 lan–; ipuin kontaketa eta antzerkia –33 lan–; txiste eta umorezko pasadizoak –41 lan–; eta eskola irratia –41 lan.

**ESKERTZA KEINUA**

Aurten 25 urte bete ditu Koldo Eleizalde lehiaketak, eta, horrexegatik, berezia eta ezustez betea izan zen sari-ematea. Hain justu ere, lehiaketarekin lotura izan duten lau herritar omendu zituzten: Jon Balentziaga, Juan Martin Elexpuru, Esteban Antxustegi eta Miguel Angel Elkoroberezibar.

Lehenengo bi urteetan izan ezik, gainontzeko guztietan Jon Balentziagak egin du lehiaketaren irudia eta Juan Martin Elexpuru, Esteban Antxustegi eta Miguel Angel Elkoroberezibar epaimahaiko kide izan dira urte askoan. Hori horrela, guztiek musu-truk egindako lana eskertzeko oroigarria jaso zuten.

## Irabazleen zerrenda

**IPUIN IDATZIA**

**1. TALDEA:**
Ez da lanik aurkeztu.

**2. TALDEA (hiru sari berdinean):**
*Belar ezberdina*
Unai Sampietro Alberdi
*Samiren lagun berriak*
Mikel Linacisoro Molina
*Aioraren desira*
Saioa Galarraga Pardina

**3. TALDEA (hiru sari berdinean):**
*Malko baten bidaia*
Malen Sampietro Alberdi
*Azti ikasle aldrebesa*
Joseba Carnicero Padilla
*Amonatxoaren abentura*
Eider Egaña Oianguren

**4. TALDEA:**
1. *Rimantas Praxitelesen abentura*
Josu Marzo Elgero
2. *Nola esan ezetz*
Karmele Uribesalgo Alzola
3. *Bizitza aspergarria*
Nerea Mujika Lopez

**5. TALDEA:**
1. *Eme ama*
Uxue Agirre Madariaga
2. *AJ RAL CH OCH (Lurraren seme-alabak)*
Josu Arantzabal Abaitua
3. *Itzulerarik gabeko txartela*
Irantzu Casanellas

**BERTSOAK**

**1. TALDEA:**
*Nire bizitza*
Jone Igartua Fernandez
*Koldo Elizalde*
Manex Bengoa Arregi

**2. TALDEA:**
1. *Animali artean*
Leire Ugalde, Eider Moncayola eta Ariana Sasieta
2. *Ikastolako bakeroak*
Asier Muñoz Poza eta Iñaki Olabarria Vicente

**3. TALDEA:**
1. *Zuhaitz zahar baten istorioa*
Julen Otaegi eta Marina Retolaza

**KOMIKIA**

**1. TALDEA (bi sari berdinean):**
*Umea eta tia komunean*
Beñat Bizente Lazkano
*Sekretua sekretua da*
Eider Egaña Oianguren

**2. TALDEA:**
1. *Maitemindutako bikotea*
Mireia Arana eta Mireia Franco
2. *Boxeo txapelketa*
Ander Gallastegi eta Andoni Mujika

**3. TALDEA (bi sari berdinean):**
*Haizeak eraman zuena*
Jose Luis Carnicero
*Emakumiak gora eta emakumiak behera*
Julen Muruamendiaraz Arana

**ANTZERKIA EDO IPUIN KONTAKETA**

**1. TALDEA (bi sari berdinean):**
*Hiru txerritxoak*
Aranzadi ikastolako HH-3 urteko taldea
*Olentzeroren oporrak*
San Martin ikastetxeko HH-5 urteko taldea eta Osintxuko ikasleak

**2. TALDEA (hiru sari berdinean):**
*Errekamari*
Angiozarko eskola
*Elektragailu bihurriak*
Aranzadi ikastolako LH-5
*Erbixa eta trikua*
Aranzadi ikastolako LH-5

**3. TALDEA:**
1. *Mari Puzker*
Amaia Etxebarria
2. *Atsuen abenturak*
Daniel Urtzelai eta Hodei Perez
3. *Edurne zuriak*
Leire Aperribai, Laura Frias eta Maite Alberdi

**TXISTEAK ETA UMOREZKO PASADIZOAK**

**2. TALDEA (bi sari berdinean):**
*Praka zikinak*
Ibon Etxabarri
*Zenbat hagin ardiak?*
Iker Larrañaga eta Julen Herran

**3. TALDEA (bi sari berdinean):**
*Ama gaixo*
Idoia Regorigo
*Usain gabeko puzkarra*
Maitane Sanchez eta Alejandra Guzman

**ESKOLA IRRATSAIOA**

**1. TALDEA:**
Ez da lanik aurkeztu.

**2. TALDEA (bi sari berdinean):**
*Olentzeroren elkarrizketa*
Aritz Rubio, Andoni Mujika eta Olatz Alberdi
**Kroki irratsaioa**
Danel Santamaria, Ainhoa Pardina, Martin Telleria eta Ignacio Dulanto

**3. TALDEA:**
1. *Edurne Pasaban*
Michelle Rajado, Maite Zulueta, Iñigo Larrañaga, Semark Lizarralde eta Alatz Lazpita
2. *Neo*
Idoia Regorigo, Sebas Rodriguez, Jon Marzo eta Julen Etxaide

**ZERBITUAK** > KZGUNEA

# Gaur zabalduko dute KZgunea kultura etxean

Irizar jauregiko birgaitze lanak bukatu arte kultura etxeko erakusketa aretoan egokitu dute

**M.B.** > BERGARA

Gaur, astelehena, zabalduko dute berriz KZgunea. Duela hilabetetik gora arte Irizar jauregian izan du egoitza, baina, jauregia birgaitzeko egiten diharduten lanak direla eta, laga egin behar izan zuten.

Hala, kultura etxean kokatzea pentsatu zuen Udalak eta hainbat egokitzapen egin eta gero, hantxe irekiko dute gaur, astelehena, behe solairuko erakusketa aretoan.

Bestalde, honako ordutegia izango du: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00. Horrez guztiaz gain, telefono zenbaki berria ere badu: 943 76 35 10 edo *tutor.bergara@kzgunea.net* helbidera ere idatz daiteke ikastaroetan izena emateko edo argibideetarako. KZguneko dinamizatzailea da Ane Untzurruntzaga.

**ZERBITZU BERBERA**

Egoitzaz aldatu den arren, zerbitzu berbera eskainiko du KZguneak: prestakuntza ikastaroak eta Interneteko sarbidea, administrazio elektronikoa, weg sozialen gaineko ikastaroak...

Hain justu ere, ekainean barrena hainbat ikastaro egongo dira: *Internet+e-Administrazioa* ikastaroa, ekainaren 14tik 30era; *Skype*, ekainaren 28an; *Draw oinarrizkoa* eta *Jarri zure iragarkiak Interneten*, ekainaren 29an; eta *Google sites*, ekainaren 30ean.



Kultura etxeko erakusketa aretoan egokitu dute KZgunea. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > HERRITARRAK

# Santiago bidea egiteko 771 kilometro, 25 egun eta hamaika istorio izan dituzte Bikuñak eta Samaniegok

Javier Samaniegok eta Gotzon Bikuñak apirilaren 15ean hasi zuten Santiago bidea; egin dituzten lagunak izan dira eurentzat esperientzia onena

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Santiago bidea egin berri dute Gotzon Bikuña eta Javier Samaniego bergararrek. Urtebete da erretiroa hartu zutela, eta bi aldiz pentsatu barik erabaki dute aspaldian buruan zutena egitea: Santiagora oinez joatea.

Apirilaren 15ean hasi zuten bidea, Donibane Garazin; eta Santiagorainoko 771 kilometroak egiteko 25 egun behar izan zituzten bi bergararrek.

**NONDIK NORA**

Donibane Garazitik Orreagara egin zuten bergararrek; gogoratzen dute hura "etapa gogorra" izan zela. 1.250 metroko desnibela igo behar izan zuten Orreagara iristeko. "Atarrabia, Puentelarreina, Villamayor de Monjardin, Santo Domingo... pasa genituen. Gero, Burgosen eta Leonen sartu ginen", gogoratzen du Bikuñak.

**OINETAN ARAZOAK**

Dena uste bezala joan da bergararrendako, ez dute inolako arazorik izan. "Betiko arazoak izan ditugu hankekin. Gure kezka hori zen, hanka kontua. Gainontzean, gorputzarekin ez dugu arazorik izan", diote. Hala, hainbat baba izan dituzte hanketan eta Bikuñak berak zuloak egin behar izan zizkien zapatilei urraturik ez egiteko. Hala egin zituzten azkeneko hamar egunak. "Lagun italiar batek esaten duen moduan, 'Camino de Santiago, camino de la bolla". Bikuñak moztutako oinetakoak etxean gordetzen ditu oraindik.

**BIDEA, ERREPIDE ONDOAN**

Bideari dagokionez, Samaniego eta Bikuñari ez zaie askori gustatu. "Gu mendian asko ibiltzen gara, baina Santiagorako bidea ez da mendian egiten. Bide zati gehiena errepide ondoan egiten da, eta ez da batere polita", azaldu dute. Batez ere, Gaztelan, zuzengune luzeak eta beroa izan dituzte.

"Bidean egin ditugun lagun batzuek esan digute azken urtetan asko aldatu dela bidea. Azpiegitura handiak egin dituzte eta Santiagorako bidea moldatu egin behar izan dute", diote. "Galiziara sartzeko, O Cebreiro mendia igo behar da –1.400 metro–, baina hara iristeko 25 kilometro egin behar izan genituen errepidean", gogoratzen du Bikuñak.

**ONENA, EGINDAKO LAGUNAK**

Esperientzia horretatik jendearekin egindako harremana nabarmentzen dute. "Gezurra dirudi, baina agur esateko orduan negar eta guzti egin genuen", gogoratzen dute. Hala, bidean egindako lagun frantses bat Bergaran izan da egun hauetan; eta Bikuña eta Samaniego Frantziara joatekoak dira sanmartinetan. Italiako lagunen gonbidapena ere jaso dute Napoliko kostara joateko.

Oinez ibili bakarrik ez, txikiteoan egin eta gastronomia dastatzeko aukera ere izan dute bi erromesek. "Nafarrak, Errioxako ardoak, Bierzokoak... dastatu ditugu eta Santiagora iritsi ginenean bazkari ederra egin genuen: itsaski-jan ederra!", gogoratzen dute.

Bitxikeriak ere izan dituzte: "Mediku magnetista bat ezagutu genuen: ziatika zuen italiar bat osatu zuen bere eskuak gainean jarrita, kalean bertan. Beste neska italiar batek pisua gainetik kentzeko gidako orriak kentzen zituen. Herri batetik pasa eta orria bota". Santiagora iritsita bi bergararrek irabazi dute jubileua Xacobeo urtean.



Javier Samaniego eta Gotzon Bikuña, Donibane Garazin. GOIENKARIA



Zubiaurreko zubiaren eta Candyren arteko errepidea. A.E.

**ERREPIDEA** > LANAK

# Ozaetako urbanizazio lanak direla-eta kalea itxi egingo dute datozen sei asteetan

Mozketa hori dela-eta Pesako autobusak ez dira Ozaetan geratuko eta saihesbidetik joango dira

A.E. > BERGARA

Udaltzainburuak aditzera eman du datozen sei asteetan, gutxienez, Ozaeta kalea itxi egingo dutela. Ozaetako urbanizazio lanak direla-eta Candy ondoko biribilgunearen eta Zubiaurreko zubiaren arteko kale zatia zirkulazioarendako moztuta egongo da gaurtik aurrera; gutxienez, sei astean.

Horren ondorioz, Pesako autobusak ez dira Ozaetako geltokian geratuko. Adierazi dute Pesako autobusak saihesbidetik egingo duela ibilbidea.

**BABESTUTAKO ETXEAK**

Ozaetako etxeetako lanak 2008ko udazkenean hasi zituzten. Babestutako 32 etxebizitza egin dituzte; Inmobiliaria Bittorrek eraiki ditu eta Udala arduratu da kudeaketaz. Urbanizazio lanak egitea da falta dena.

**MUSIKA** > DEIALDIAK

# Udaleku musikaletan izena emateko epea zabalik dago

Ekainaren 4ra arte eman dezakete izena udalekuetan 4 eta 12 urte bitarteko umeek

A.E. > BERGARA

Bigarren urtez jarraian antolatuko ditu Bergarako Musika Eskolak udaleku musikalak. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago; ekainaren 4ra arte eman daiteke izena musika eskolan bertan.

Antzerkia, dantza, erritmoa eta ahotsa landuko dira udalekuetan. Horretarako, esperientzia zabaleko irakasleak izango dituzte: Aitziber Garmendia, Patxi Montero, Nerea Muruamendiaratz eta Miren Garikano.

**MATRIKULAZIOA**

2010-2011 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dago ekainaren 15era arte. Ikasturtearen berrikuntzak izango dira musika eta mugimenduen tailerra eta hasiberrien abesbatza.

> HITZALDIA

## Jorge Gonzalez biologoak Bergarako animalia eta ugaztunen inbentarioaz jardungo du bihar

Bergarako II. Aste Berdearen barruan antolatutako hitzaldia da biharkoa. Jorge Gonzalez biologoak egingo du hitzaldia, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan hasita. Gaia izango da: *Bergarako animali ugaztunen inbentarioa, distribuzioa eta kontserbazio egoera*. Aste Berdea ekainaren 1etik 6ra bitartean izango da, eta, besteak beste, hitzaldia eta erreka garbitzeko irteera egingo dituzte. Gainera, herriko iraunkortasunari buruzko informazio orriak banatuko dituzte etxeetan.

**JAIAK** > CORPUSAK

# Fernando Diaz izango da San Migel domekan

2004an Jose Errastiren lekukoa hartu zuen, eta aurten Jose Antonio Agirianorena

Corpus egunaren inguruko ospakizunak egubakoitzean hasiko dituzte Oñatzeko dantzariek

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Berrikuntza asko barik egingo dute domekan Corpus eguneko prozesioa. Aldaketa bakarra prozesioko protagonistari bizia emango dion pertsona da: Fernando Diaz izango da San Migel. Azken hiru urteotan paper hori bete duen Jose Antonio Agirianori lekukoa hartuko dio.

Fernando Diazek badaki zer den San Migel izatea. 2004an hartu zio lekukoa Jose Errastiri. Hiru urtean (2004an, 2005ean eta 2006an) izan zen Corpuseko prozesioko protagonista. Domekarako "gogotsu" dagoela esan digu.

**OÑATZEKO DANTZARIAK LEHENAK**

Corpus jaietako ekitaldi nagusia domekako prozesioa da, baina egunaren inguruan egitarau zabala prestatu dute kultura arduradunek.

Urtero moduan, Oñatz dantza taldeko dantzariak izango dira kalera irteten lehenak. Egubakoitzean herriko auzoak eta ikastetxeak girotuko dituzte Corpus eguneko dantzekin. Era berean, barikuan, txorimaloek kalejira egingo dute, 18:00etan, eta Jose de Azpiazu musika eskolako taldeek musika-maratoia Herriko Plazan, 18:45ean.

Gauean, 22:30ean, Yllana antzerki taldeak *Zoo* antzezlana eskainiko du Santa Ana antzokian. Emanaldirako sarrerak salgai daude dagoeneko kultura etxean, 10 eurotan. Gazte txartelarekin 8 euro ordaindu beharko dira.

**ZAPATUAN, KIROLA NAGUSI**

Zapatuko lehen doinuak Oñatzeko dantzariek jarriko dituzte. Kalerik kale ibiliko dira. Bestalde, 10:30ean, Txopekuako tiro zelaian, probintziako txapelketa jokatuko dute. Ordu berean hasita, baina plazan, Euskal Selekzioaren Eguneko ongietorria egingo dute. Horren harira, hainbat ekitaldi egingo dituzte egun osoan; besteak beste, gaztetxoendako lasterketak, herri jokoak, herri bazkaria eta Porrotx pailazoaren emanaldia.

Zapatu arratsaldean kirola izango da nagusi: alde batetik, Euskal Herriko txapelketa jokatuko dute, 18:45ean; eta beste alde batetik, Debarroko pilota txapelketako finalak (16:30). Gauean Trikizio taldeak erromeria egingo du plazan.

**MEZA ETA PROZESIOA**

Domekarako egitarauan berrikuntza gutxi daude: 11:00etan meza nagusia egingo dute parrokian udal ardurdunekin eta prozesioko santuekin. Ondoren, prozesioa egingo dute. 18:15ean Oñatzekoek emanaldia egingo dute eta 19:00etan musika bandakoek kontzertua; biak ala biak, plazan.



Fernando Diaz izango da San Migel domekako prozesioan. Argazkian, 2004ko prozesioa hasi aurretik. ARTXIBOA




Probaren aurkezpenean egondako kideak. ARATZ LOSADA

## Antxintxika proba irekiagoa izango da Corpus bezperakoa

VIII. Oñatiko herri lasterketaren aurkezpena egin zuten barikuan. Ekainaren 5ean jokatuko da eta Euskal Herriko txapelketa izango da. Izenematea zabalik dago ekainaren 4ra arte *www.herrikrossa.com* webgunean.

Bestalde, antolatzaileek hirugarren eta seigarren kilometroetako gutxieneko denborak kentzea erabaki dute. Hortaz, proba herrikoiagoa eta irekiagoa izango da.

**UDALA** > DEIALDIA

# Gazte taldeendako laguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Eskaerak ekainaren 18ra arte egin daitezke

**M.B.** > OÑATI

Herriko irabazi asmorik gabeko gazte taldeek euren proiektuak garatzeko dirulaguntzak eska dezakete dagoneko. Udalbatzarrak onartutako deialdia Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu zen maiatzaren 18ra arte, eta eskaerak udal bulegoetan egin daitezke ekainaren 18a baino lehen. Bete beharreko orriak Gazte Informazio Puntuan daude.

**HAINBAT JARDUERATARAKO**

Taldeek hainbat jardueratarako dirulaguntzak eska dezakete; hain zuzen ere, taldearen sustapenerako; kultura sormenerako eta hedapenerako –maketak grabatu, komikiak argitaratu, antzezlanak eta ikus-entzunezkoak produzitu...–; materialaren erosketarako eta eraberritzerako; eta ezohiko jarduerak egiteko.

Eskaera egiten duten taldeetako kideen erdiak 12-30 urte bitartekoak izan beharko dira.

## oharrak

DEIALDIA

**> 'Itzarri' erakusketa domekara arte**

Esteban Kerexetaren eskulturak ikusgai daude kultura etxean, egunero, 18:00etatik 20:00etara. Burdinaz, egurrez, eta harriz egindako 40 lan jarri ditu oñatiarrak.

DEIALDIA

**> Futbolean ibilitako neskek bazkaria egingo dute**

Aloña Mendin ibilitako neskek bazkaria egingo dute ekainaren 19an. Interesatuek 30 euro sartu behar dituzte 2101005753001262892l zenbakian. Aurretik futbol partidua jokatuko dute.

DEIALDIA

**> Turkiara doazen erretiratuekin bilera**

Eguaztenean bilduko dira, Pake Lekun, 18:00etan.

**ESKORIATZA** > ZAHARREN EGOITZA

# Egoitzaren titularitatea Udalaren esku gura dute

Hala erabaki zuen udalbatzak joan den eguaztenean egindako osoko bilkuran eta horretarako tramiteak hasteko eskatu du

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Zaharren egoitzaren gaineko hainbat erabaki hartu zituen Eskoriatzako udalbatzak aho batez eguaztenean, hilak 26, egindako ohiko osoko bilkuran.

Lehenik, egungo egoitza zaharberritzearen gainean jardun zuten elkartutako zinegotziek. Hala, egoitzaren batzordeak duela urtebete hartutako erabakia berretsi zuen eta berriro eskatu zion egoitza horren arduraduna den Patronatuari lehenbailehen hasi ditzala egoitzaren zaharberritzeko lanak. Izan ere, hogei nagusi bizi dira bertan eta eraikinak berritze lanak behar dituela lehenbailehen uste du udalbatzak.

**HERRI IZAERAKO EGOITZA**

Udalbatzak gainera, zaharren egoitzaren titularitatearen gaineko erabakia hartu zuen eguaztenean. Titularitate hori Udalaren esku uztea gura dute eta adostu zuten Patronatuari eskatzea horretarako behar diren erabakiak har ditzala eta bide batez, horretarako tramiteak hasi.

Pedro Lasagabaster alkateak jakinarazi zuen egoitza oso garrantzitsua dela herrirako eta egoitzaren titularitatea Udalaren esku uzteko hartutako erabakia historikotzat jotzen duela: "Seguru nago gehienok herri izaera duen egoitza nahi dugula, tratu pertsonalizatu eta familiarra eskainiko duena eta gainera gure zaharren erosotasuna eta ongizatea bermatzeko baliabide modernoz hornituta dagoena". Eta hori lortzeko lanean jarraitzeko asmoa agertu zuen udalbatzak osoko bilkuran.

ESANAK

**"Gehienok herri izaera duen egoitza nahi dugu, tratu pertsonalizatu eta familiarra eskainiko duena"**

**Pedro Lasagabaster** > Alkatea

**IRREGULARTASUNAK KUDEAKETAN**

Egoitzaren gaiarekin bukatu aurretik alkateak gogorarazi zuen eraikin horren kudeaketan "oso larriak" diren irregulartasunak antzeman dituztela eta horiek argitzeko ikerketa zabalduta dagoela.

Eta jakinarazi zuen joan den martitzenean izandako bileran Patronatuak erabaki zuela hasierako zuhurtasun neurria hartzea. Horren ondorioz, orain arte administratzaile lanetan jardundako langileari espedientea zabaltzeko erabakia hartu zuten bilera horretan, eta, era berean, egoitzaren kudeaketa ekonomikoarekin zerikusirik duten funtzioak eten.



Ibarraundi museoan ikusgai dauden pintura batzuk. IBARRAUNDI

**ESKORIATZA** > ERAKUSKETA

# Olio-pinturak eta akuarelak ikusgai Ibarraundi museoan

Olioak Koldo Goienolarenak dira eta akuarelak Pilar Antsuategi arrasatearrarenak

**M.A.** > ESKORIATZA

Bi erakusketa inauguratu zituzten egubakoitz arratsaldean Ibarraundi museoan: batetik, Koldo Goienola Eibarko pintoreak olio-pinturak jarri ditu ikusgai eta hilabete osoan egongo dira. Aire zabaleko lehiaketak ditu gustuko Goienolak eta sari asko jasotakoa da, tartean Bergaran eta Aramaion. Bestetik, Pilar Antsuategi arrasatearraren akuarelak daude ekainaren 11 bitartean.

Hona Ibarraundi museoko erakusketek izango duten ordutegia ekainean: hilaren 11 arte: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta hilaren 14tik aurrera goizez bakarrik: 12:00-14:00.




MIRARI ALTUBE

## Gazte Ekimena, lanerako gogotsu

Taberna jarri zuen egubakoitzean Aretxabaletako Gazte Ekimenak Durana kalean eta halaxe egingo du datozen hiru egubakoitzetan ere –ekainak 4, 11 eta 18–. Edatekoaz gain jatekoa ere izan zuten, eta guztia trikiti doinuekin girotuta. Hurrengo egubakoitzetarako beste ekitaldi batzuk antolatuko dituzte, tartean bakarrizketa.

Gazte Ekimena indartu egin da azken hilabeteotan eta ekintzak antolatzeko gogotsu daude, Andramaixetan lehenengo eta irailetik aurrera gero. Horretarako, baina, dirua behar eta helburu horrekin jarriko dute taberna egubakoitzetan.

**ARETXABALETA** > KULTURA

# Julen Cobosen kontzertua eta antzerkia ekainean

'Las chicas serias no gustan' lana eskainiko du hilaren 11n Las Torpedolevel taldeak

**M.A.** > ARETXABALETA

Gertu dauka Kultura Sailak Arkupe kultura etxeko ekaineko egitaraua eta antzerkiak eta musika izango dira protagonista oraingoan. Erakusketa aretoari dagokionez eskulan eta zeramika ikastarotako ikasleen lanak izango dira ikusgai egubakoitzean hasi eta hilabetea bukatu bitartean.

**LAS TORPEDOLEVEL TALDEA**

Helduek antzerkia izango dute ekainaren 11n, egubakoitza (22:00). Las Torpedolevel taldeak *Las chicas serias no gustan* lana eskainiko du –sarrera, 4 euro–. Carmen Pardo eta Vene Herrero aktoreek sexuaren, jasotako hezkuntzaren eta antzeko kontuen gaineko hausnarketa egingo dute, umore giroan.

Umeek, ostera, bi ikuskizun izango dituzte: Dejabu taldeak *Azken portua* eskainiko die domekan (17:00) eta Izaskun Muxika ipuin kontalariaren eskutik *Munduko ipuinak* izango dituzte ekainaren 19an, liburutegian (11:30).

**MEDITERRANEOKO DOINUAK**

Musikak ere izango du lekua Arkupen. Julen Cobos *Zakone* kantautore aretxabaletarra izango dugu hilaren 18an, egubakoitza, (22:00). Euskara, gaztelania eta katalana erabilita mediterraneoko eta flamenko doinuak nahasten dituen abestiak eskainiko ditu lagun eta herritarren aurrean.

Eta Leizarra musika eskolako kontzertuak ere egingo dituzte ikasturtea bukatu aurretik (18:30): eguaztenean, hilaren 2an, piano emanaldia; hilaren 9an, trikiti eta pandero emanaldiak; eta hilaren 14an, akordeoi emanaldia.

**HIRUATXEN BERBALDIA**

Berbaldiak ere izango dira ekainean: batetik, Aste Berde barruan antolatutakoak, eta, bestetik, Hiruatxek antolatutakoak: *Salinasen nola?* Ekuadorko Salinas herrian duten proiektuaren berri emango du handik etorritako Dorian Fernando Ruiz kideak.

**oharrak**

ARETXABALETA

**> Odol ateratzeak gaur eta ekainaren 7an eta 15ean**

Arabako odol bankuko kideak izango dira odola ateratzen osasun etxean (16:00-20:00).

OSOKO BILKURA

**> Ohiko osoko bilkura gaur**

Hainbat gai eztabaidatuko ditu udalbatzak gaur (18:00), tartean Udalaren eta Bidegiren arteko hitzarmena.

BATZARRA

**> Ezker abertzalearen proposamenaren aurkezpena**

*Zutik Euskal Herria* ezker abertzalearen proposamen berria aurkeztuko dute bihar, martitzena, Arkupen (19:00).

BERBALDIA

**> Elikadura ekologikoaren gainean jardungo dute eguenean**

Ekolapiko proiektuko kide den Sabrina Pato dietistak elikadura ekologiko eta orekatuaren gainean egingo du berba hilaren 3an, Arkupen (19:00).

ERRETIRATUAK

**> Iratxera joateko txartelak salgai hilaren 3an eta 4an**

Iratxera (Nafarroa) irteera antolatu du Basotxo erretiratuen elkarteak hilaren 11rako eta txartelak salgai izango dituzte eguen eta egubakoitzean (11:00-12:00) egoitzan.



Elena Elkoro, botikan, bezero bat artatzen. L.Z.

**OSASUNA** > BOTIKAK

# Tratamenduan daudenei, jarraipen zerbitzua laster

## Osakidetzak eskaintzen duen zerbitzu berria eskatzea onartu du Udalak; etxez etxeko laguntza jasotzen dutenendako doan izango da

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Elena Elkoro eta Amaia Garitano botikariek zerbitzu berria eskainiko dute laster; jarraipena egingo diete tratamenduren bat jarraitu behar duten herritarrei.

"Zerbitzua borondatezkoa da eta eskatu egin behar da", argitu du Elena Elkorok. "Printzipioz gaixotasun kronikoak dituzten eta adinean aurrera egin duten herritarrendako pentsatua dago", esan du. "Euren kabuz moldatzeko erabateko gaitasuna ez dutelako edo bestelako arrazoiengatik botikak erabiltzeko eta kontrolatzeko zailtasunak dituzte hainbat pertsonak", esan du Elkorok. "Errezetak etxean iraungi egiten zaizkie, edo botikak erosten dituzte eta ez dituzte hartzen. Gertatzen da ere botikak nahastea eta txarto hartzea... egoera horiek identifikatzea eta konpontzea da zerbitzu berriaren helburua", adierazi du botikariak.

**ESKATU EGIN BEHAR DA**

Zerbitzua doan izango da etxez etxeko laguntza jasotzen duten herritarrendako, baina Udal Gizarte Zerbitzuen bitartez bideratuko da. Gainerakoek ere zerbitzu hori eska dezakete botikan bertan. Prezioa, horiendako, hileko 30 euro da.

**BOTIKARA ASTEAN BEHIN**

"Gure lehenengo lana izango da gaixoarekin edo bere arduradunarekin elkartzea eta etxean dituen botika eta errezeta guztiak batzea", esan du Elkorok. "Konprobatuko dugu bere tratamendua zein den eta botikak ondo hartzen dituen. Hortik aurrera astean behin etorriko da botikara eta zazpi egunerako prestatu diogun *blisterra* edo pastillak gordetzekoa eramango du etxera. Hustutakoak botikara ekarri beharko ditu". Zerbitzu berriaren helburua da tratamenduan dagoenari gauzak erraztea, eta bide batez botiken kontsumoa egokia dela ziurtatzea.

**ANTZUOLA** > OSPAKIZUNAK

# Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak jaia egingo du ekainaren 12an, Mallabian

## Antzuolako Udala 2003a ezkero dago UEMAn; mankomunitatearen helburu nagusia da euskara berreskuratzea

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Ekainaren 12an UEMA eguna ospatuko dute Mallabian *Ein eingou* lelopean.

Egun horretarako egitarau zabala prestatu dute. Ekitaldien artean, nabarmentzekoa da herrien arteko Xiba jokoa –12:00etan–. Parte-hartzeko, baina, izena eman beharko da eta gaur da azken eguna. Izena emateko deitu UEMAra: 94 627 91 95.

Zortzi laguneko taldeak izan behar dute (lau neska eta lau mutil). Egingo dituzten jokoak dira: ingudea, sokatira, bertsotan, toka, auzolana , egur pilaketa eta Aras Lama. Edonork egiteko moduko jokoak dira.

**BAZKARIKO TXARTELAK**

12:00etan Xabier Mendigureni omenaldia egingo diote frontoian. Ondoren, mahai-ingurua eta 14:30ean bazkaria: txartelak erosteko UEMAko bulegoetara deitu. Oiartzun (943 26 03 72), Azpeitia (943 81 66 99) edo Aulesti (946 27 91 95).

Udalerri euskaldunek euskara berreskuratzeko zereginean zuten garrantziaz jabetuta, hainbat udalek UEMA sortu zuten 1991. urtean. Antzuolako Udala 2003a ezkero dago UEMAn.

**ARAMAIO** > JAIAK

# Eguzkierripa Rock jaian, herritarrak protagonista

## Aurtengoarekin "oso pozik" geratu dira antolatzaileak eta datorren urtekoan pentsatzen dabiltza dagoeneko

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Gorroto eta Alta Tension musika talde aramaioarrek erakarri zuten ikusle gehien zapatuko Eguzkierripa Rock jaira. "Gorrotok CDa atera du, eta Alta Tension taldekoak herriko gaztetxoak dira. Ikusle gehienak aramaioarrak ginenez, bi taldeok izan zuten arrakastarik handiena", kontatu dute antolatzaileek. Hala ere, kanpoko bisitariak ere izan zirela ere aitortu zuten: "Aretxabaleta eta Arrasatetik ere etorri dira. punk musikak beti erakartzen ditu-eta zaleak".

**BERTSOTAN ERE BAI**

Andra Mari ermita inguruan, baina, kontzertuez gainera, bestelako ekitaldiak ere egin zituzten; tartean, esaterako, 60 lagun batu zituen herri bazkaria. Hori baino lehen, bertsotan (Iker Agirre eta Jokin Labaien) eta jolasean jardun zuten gazteek. Eta Aramaio bera ere girotu zuten eguerdi partean, "trikitilariek lagundutako txikiteoa" egin zuten-eta.

Aurtengoarekin "oso pozik" geratu dira antolatzaileak, eta dagoeneko datorren urtekoan pentsatzen dabiltza.




Andra Mari ermitaren babesean egin zuten herri bazkaria. GOIENKARIA

**LEINTZ GATZAGA** > UDALA

# 386.902 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2010erako

## Egoera ekonomiko larrian dago eta partida batzuk kendu egin dituzte

**J. IRIONDO/M.ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Ia sei hilabete behar izan du diru kontuak ondo baino hobeto begiratu, zehaztu eta onartzeko Gatzagako Udalak. Eta joan den eguenean, hilak 27, 386.902 euroko aurrekontua onartu zuen 2010erako, iazkoa baino 27.000 euro txikiagoa.

**PARTIDA MURRIZKETAK**

Oso egoera larrian dago Udala eta hala onartu du Eusebio Villar alkateak. Bakarrik gastu arruntei zelan egin aurre asmatu behar izan dute, eta aurrekontuko gastuen ataletik kanpo, beste 14.000 euro itzuli behar dizkio Foru Aldundiari.

Egoera horren aurrean, kultura elkarteei eman beharreko dirua %10 jaitsi dute. Ez hori bakarrik, aurrekontua onartu ahal izateko partida batzuk kendu behar izan dituzte, eta urte bukaeran ordaindu beharreko zenbait gastu datorren urterako utzi.

**INBERTSIO BAKARRA**

Aurten inbertsio bakarra egingo dute eta horretarako iazko aurrekontutik gordetako partida bat erabiliko dute. Pilotalekuko lanak egiteko izango da hori eta herriko jaien ostean hasiko dira.

Inbertsioak egiteko dirurik ez izateak beste ondorio bat ere ekar dezake: dirulaguntza batzuk galtzea. Hala, Landagipuzkoa egitasmoaren bitartez jaso beharreko dirulaguntza bat kolokan dago. Gatzagainera ura eramateko proiektuarendako izango litzateke dirulaguntza hori, baina Udalak ere jarri behar du zati bat, diru kopuru handia gainera, eta jarri ezean galdu egingo du.

# Kirola




**> KIROLA KALERA**
Eskoriatza kirol elkartekoek ekintzak kalera atera zituzten > 24




**> BOULDERRA**
Cruz eta Arroitajauregi dira Euskal Herriko boulder txapeldunak > 25



**> ELKARRIZKETA**
Korta eta Perurena, parez pare, unibertsitatearen mahai-inguruan > 27

**SASKIBALOIA** > HARRERA UDALETXEAN

## Denboraldi bikainarengatik oroigarria jaso zuten Aloñakoek

**HARRERA**
Udal arduradunek harrera egin zieten saskibaloiko jokalariei, entrenatzaileei eta zuzendaritzako kideei

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Ondo egindako lanak behar bezalako aitorpena merezi du. Horixe izan zuten Aloña Mendiko senior mailako saskibaloi taldekoek. Udal arduradunek harrera egin eta oroigarria eman zieten osoko bilkuren aretoan egubakoitzean. Datorren urtean lehen mailan jokatuko duten jokalariekin eta entrenatzaileekin batera, zuzendaritza batzordeko kideak, gazte mailako taldeko jokalariak eta senitartekoak egon ziren.

Kirol zinegotzi Andoni Gartziak hitza hartu eta hainbat datu azpimarratu zituen: "30 partidutik 26 irabazi dituzue, azken 17ak jarraian. 2.700 puntu egin dituzue... Duda barik, txapeldunen zenbakiak dira". Era berean, Santurtziren kontra Zubikoan jokatutako partidua gogorarazi zuen (108-103 irabazi zuen Aloñak, luzapenean), eta Zubikoan jokatu den "inoizko partidurik onena" izan zela esan zuen.



Andoni Gartzia zinegotzia Eneko Blanco kapitainari oroigarria ematen.



Jokalariak eta zuzendaritza batzordekoak plazan.



Xabi Igartua baloia sinatzen.

ARGAZKIAK: JULIO CALLEJA

**"HISTORIKOA DA"**

Ondoren hitza hartu zuen saskibaloi saileko presidente Jose Luis Campok. Taldeko kide guztiei eskerrak eman zizkien egindako lanarengatik, eta egin dutena "historikoa" dela gogorarazi zien.

Azkenik, Xabi Igartua entrenatzailea zuzendu zitzaien osoko bilkuran zeudenei. "Oso pozik nago. Liga oso gaizki hasi genuen (Santurtzin galdu egin zuten), baina talde bat garela erakutsi dugu, kantxa barruan eta kantxatik kanpo", esan zuen.

PROTAGONISTEN HITZAK



**Jose Luis Campo**
Presidentea

"Oso pozik gaude lortutakoarekin. Saskibaloiarendako historikoa da lehen mailan jokatzea. Jokalariei esan diet hurrengo denboraldia zaila izango dela, baina ondo pasatzeko. Zuzendaritza batzordeko kideok gogor jarraituko dugu lanean, maila berrirako diru gehiago beharko dugu-eta".



**Mikel Biain**
Jokalaria

"Iaz igoera lortu genuenean harrera barik geratu ginen. Horregatik guztiagatik, gaurko ongietorria berezia izan da guretako. Denboraldi oso ona egin dugu. Iazko denboraldian taldelana sakondu genuen, eta emaitzak begi-bistan daude: igoera eta txapelketa lortu ditugu".



**Eneko Blanco**
Jokalaria

"Neretzako eta taldeko jokalari beteranoendako saria da lehen mailan jokatzea. Urte asko daramatzagu, eta hiru urtean hiru igoera lortu ditugula ikusteak biziki pozten nau. Gure arteko giroa ikaragarria. Iaz Arrasatetik etorri ziren Iagoba, Ander eta Iñigo oso ondo integratu dira".



**Ander Mallabiabarrena**
Jokalaria

"Arrasatetik etorri ginen jokalariendako esperientzia ikaragarria izan da igoera lortzea. Jokalari batzuk lehen maila ezagutzen dugu, eta maila ona emateko taldea dugula esango genuke. Nire ustez maila mantentzeko ez ezik, goiko tokietan egoteko jokalariak ditugu".



**Xabi Igartua**
Entrenatzailea

"Gustura nago. Santurtziri irabazi eta lehenengo jarri ginenean, txapelketa irabazteko helburua jarri nien jokalariei, eta lortu dugu. Talentu ikaragarria dute. Guztiek dakite zein den euren papera, ze gauza egiten ditugun ondo eta zeintzuk gaizki. Maila handiko jokalariak dira".

**OHOREZKO ERREGIONALA** > AZKEN JARDUNALDIA

# Partidu lasaian, garaipen batekin agurtu zuen denboraldia Aloña Mendik

ALOÑA MENDI
**2-1**
HERNANI

**Aloña Mendi** > Iñigo Idigoras, Gorka Bernal, Julen Barrena (Endika Ruiz, 88. min), Jon Igartua, Mikel Palacios, Julen Palacios (Aritz Garmendi, 36. min), Unai Arregi, Eldin Zivojevic (Xabi Carpintero, 61. min), Xabi Agirre (Iñigo Zubia, 68. min), Josu Juaristi eta Iker Olalde (Jagoba Martin, 82. min).

**Hernani** > Ion Garcia, Arrese, Goia, Lujanbio, Ibarramendi, Arregi, Rincon, Alkorta, Galdona, Olasagasti eta Segurola.

**Epailea** >Mitxelena izan zen partiduko epailea, Merino eta Label marrazainen laguntzarekin. Julen Barrenak ikusi zuen partiduko txartel hori bakarra, 60. minutuan. Talde biek ez zuten ezer jokoan, eta epaileak lan erraza izan zuen.

**Bestelakoak** > Ohiko ikusleak Azkoagainen, denboraldiko azken partiduan. Julen Barrena, Eldin Zivojevic eta Iker Aramendiren agur partidua. Eguraldi goibela. Partiduaren atarian, bi taldetako jokalariek pasilloa egin zieten Aloñako senior mailako saskibaloi taldekoei, lehen maila nazionalera igoera lortu berri dute-eta. Iñigo Biain taldeko jokalariak egin zuen ohorezko sakea. Atsedenaldian, berriz, kadete mailako futbol taldeko neskek Gipuzkoako Kopa jaso zuten Javier Azpiazu Aloña Mendiko presidente eta Gipuzkoako Futbol Federazioko zuzendaritzako kidearen eskutik.



**LEHIA LASAIA** Mikel Palacios oñatiarra, Hernaniko jokalarien ondoan, atzoko partiduko irudi baten. JULIO CALLEJA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Sailkapeneko behealdean ibili eta gero, gauza handia da azken partidura lasai, ezer jokoan ez dagoela heltzea. Lagunak behar bezala agurtu eta futbolaz gozatzeko egun aproposa izan zen atzokoa. Zortzi bat urte lehen taldean eman eta gero, Julen Barrenak taldea uztea erabaki du; taldekideen eta zaleen errekonozimendua jaso zuen atzo. Hurrengo denboraldian, entrenatzailearen ondoan izango da Barrena.

Inolako tentsio barik, presio barik jokatu zuten Hernanik eta Aloñak. Espazioak utziz, markaketa estu barik, ia-ia lagunarteko partida balitz moduan. Etxekoen bi golak oso antzekoak izan ziren; lehenbizikoan, 45. minutuan, Josu Juaristik barneraketa egin zuen eta atzerako pasea Xabi Agirrek sareetara bidali zuen. Handik bost minutura, berriro ere Agirre eta Juaristi izan ziren protagonista baina bigarren honetan Juaristi izan zen golegilea; oparia itzuli zion Agirrek, pase eder batekin.

Hernanik aldea murriztu zuen 55. minutuan, Rinconek egindako golari esker. Baina hortik aurrera gol aukera gutxi egon ziren eta bi taldeak sendo aritu ziren defentsan. Etxekoek garaipen batekin agurtu nahi zuten denboraldia eta esan bezala hiru puntuak Oñatin geratu ziren. Atzoko garaipenaren ostean, 10. tokian sailkatu da Aloña, 44 punturekin. 13 partidu irabazi, 16 galdu eta gainerako bostak berdindu egin dituzte oñatiarrekin.

Esan bezala, Pablo Diezek taldeko entrenatzaile izaten jarraituko du hurrengo denboraldian, eta Ismael Eraña eta Josu Barrena izango ditu laguntzaile

**BATZARRA, HILAREN 19AN**

Datorren ekainaren 19an Aloña Mendiko batzarra izango da eta denboraldia agurtzeko ohiko afarian talde ezberdinetako onenak sarituko dituzte.

Aurretik, baina, beste futbol hitzordu bat izango da: Jose Luis Agirre zenari omenaldia egingo diote ekainaren 12an. Realeko eta Aloñako beteranoen arteko lagunarteko partidua izango da egun horretan Azkoagainen.



**AGURRA** Julen Barrenak futbola utziko du; azken partidua jokatu zuen atzo. J. CALLEJA

**OHOREZKO ERREGIONALA** > BERGARA-OIARTZUN

## Manu Diazen eta 'Txanpi'-ren azken partiduan Bergarak Oiartzunen aurka galdu

Liga amaiera txarra izan du Bergarak; atzo 0-2 galdu zuen Agorrosinen

**E.M.** > BERGARA

Jokoaz gozatu eta garaipena ospatzeko baino, taldeko hainbat lagun agurtzeko partidua izan zen ligako azkena. Bergarak amaiera txarra eman dio ligari, azken jardunaldietako ildoari jarraituta. Baina emaitza gutxienekoa zen. Taldeak ohorezko erregional mailan jarraituko du eta harrobiko lanari eustea da zuzendaritzaren asmoa.

Harrobiaren adierazgarri da Mikel Otero *Txanpi*, azpiko mailetatik mahoneroekin arituta-koa. Azken partidua zuen atzo: Beñat Catalan taldekideak aurreskua eskaini zion partiduaren atarian eta Pedro Rico presidenteak plaka oroigarria eman zion. *Txanpi*-rekin batera, Iñaki Mujikak, Oier Loiolak, Jon Alzolak, Josu Agirrezabalek eta Jon Urteagak taldea utziko dute. Manu Diaz entrenatzaileak ere agur esan zuen atzo, azken hiru denboralditan lan bikaina egin eta gero. Igor Fernandez laguntzailea joango da harekin.

**LUZAPENEAN BIGARREN GOLA**

Partiduari dagokionez, Oiartzunek 20. minutuan egin zuen lehen gola. Luzapenean, Bergara berdinketaren bila zebilenean, Unai Iraola etxeko atezaina korner bat errematatzera joan eta orduan iritsi zen bigarren gola.

> OHOREZKO ERREGIONALA

### Zerona berdindu zuen Mondrak Tolosako taldearen aurka

Husna berdindu zuen Mondrak Tolosaren aurka, zapatuan Berazubin jokatutako partiduan. Besteak beste, Andoni Azkargorta Mondrako entrenatzailearen azken partidua izan zen zapatukoa; Euskal Ligan ari den Eibarko gazte mailako taldearen ardura hartuko du hurrengo denboraldian.

Ligako bigarren zatian bikain ibili dira arrasatearrak eta sailkapeneko 6. tokia eskuratu dute, 14 partidu irabazita, 13 galduta eta zazpi berdinduta.

**sailkapenak**

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

| | Punt. | J. |
|---|---|---|
| 1. **Zarautz** | **72** | 34 |
| 2. **Aurrera Ondarroa** | **71** | 34 |
| 3. **Pasajes** | **68** | 34 |
| 4. **Tolosa** | **58** | 34 |
| 5. **Oiartzun** | **55** | 34 |
| **6. Mondra** | **49** | 34 |
| **7. Trintxerpe** | **49** | 34 |
| 8. **Real Union** | **48** | 34 |
| 9. **Idiazabal** | **48** | 34 |
| 10. **Aloña Mendi** | **44** | 34 |
| 11. **Berio** | 43 | 34 |
| 12. **Hernani** | **42** | 34 |
| **13. Bergara** | **42** | 34 |
| 14. **Hondarribia** | **41** | 34 |
| 15. **Ordizia** | **37** | 34 |
| 16. **Beti Gazte** | **29** | 34 |
| 17. **UPV-EHU Vasconia** | **27** | 34 |
| 18. **Euskalduna** | **27** | 34 |

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO LIGARAKO IGOERA FASEA

# Irabazi arren, susmoa da hori ez dela nahikoa izango

## Jardunaldi bakar baten faltan, igoera lortzea zaila daukate Josetxo Muniategiren mutilek

## Elgoibarren irabazi eta Deustuko Unibertsitateak galtzeko zain egon beharko dira bergararrak

BERGARA
**31-24**
CORAZONISTAS B

**Bergara** > Jon Errasti, Gorka Uribe, Alatz Etxeberriarteun (gol bat), Gorka Iñurrieta (gol bat), Gorka Ugalde, Iñaki Najera (gol bat), Mikel Plazaola (12 gol), Hodei Lenisoro (gol bat), Iñaki Manuel (4 gol), Jon Kapelastegi, Unai Orgaz, Josu Urbina (4 gol), Eneko Unamuno (2 gol) eta Eneko Sudupe (5 gol).

**Corazonistas B** > Javier Egiluz, Raul Ruiz (5 gol), Joseba Ruiz de Apodaca (3 gol), Jon Ander Cortes, Kevin Carou (5 gol), Issa Sambe (gol bat), Mikel Ruiz (gol bat), Miguel Leal (3 gol), Oscar Arana (2 gol), Iñigo Biribai, Mikel Bergara (4 gol) eta Juan Carlos Torres.

**Bestelakoak** > Javier Ramiro eta Aritz Vicioso izan genituen partiduko epaileak. Arazorik gabeko partidua izan zen. Ikusle gutxi Labegaraietan domeka eguerdian jokatutako partidua ikusteko.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bergarak etxeko lanak egin zituen domekan, Corazonistas B taldeari irabazita. Hala ere, ziurrenik ez da nahikoa izango, eta jardunaldi bakar baten faltan, igoera lortzea benetan zaila daukate Muniategiren mutilek.

Astean zehar askotan akordatu dira bai bergararrak aurreko zapatuan Bilbon galdutako partiduarekin. Partidu erabakigarria zen hura eta huts egin zuten. Deustuko Unibertsitateak bi goleko abantailaz, 31-29 irabazi zien eta han galdu zituen Bergarak Euskadiko Ligara igotzeko aukera gehienak. Josetxo Muniategi etxeko entrenatzaileak atzo aitortu zuenez, jokalarien animuarengan eragin nabarmena izan zuen lehengo zapatuko porrotak. Edozein modutan ere, partidu serioa egin zuten etxekoek atzo, eta erraz hartu zuten mendean Corazonistas B, zazpi goleko abantailaz. Lehen zatian, hiru gol aurretik zen Bergara, 17-14.

Domekakoa, teorian behintzat, partidu erraza zen etxekoendako, Corazonistas B igoera faseko ligaxkan azken sailkatuta genuelako, oraindik partidu bakar bat ere irabazi barik. Eta azken markagailuak erakusten duenez, ez zieten lan askorik eman mahoneroei Labegaraietan. Partidu osoan zehar jaun eta jabe izan ziren etxekoak.

**ABANTAILA ERASOA**

Hasieratik jarri zen aurretik Bergara eta atzean zein erasoan lan ederra egin zuten. Nabarmentzekoa Mikel Plazaolak egindako partidua: hark eraman zuen erasoko jokaldi gehienen erantzukizuna eta fin aritu zen ate aurrean: 12 gol egin zituen eskumako hegalean aritzen den jokalari ezkertiarrak.

Bigarren zatiko 24. minutuan iritsi zen abantailarik handiena (28-20) eta askoz ere aurretik partidua erabakita zegoen. Ordurako ikuskizuna aulkian zegoen. Muniategik bere jokalarien akzioak zuzentzen jarraitzen zuen, behin eta berriz tentsioa eskatuz. 26 urte entrenatzailetan eta hasierako kemenari eusten dio. Txalogarria benetan.

**ELGOIBARREN AZKENA**

Atzoko jardunaldian liderrak, Egiak, Elgoibarri irabazi zion (30-26) eta Deustuko Unibertsitateak ere aurrera atera zuen etxeko partidua Trapagarani irabazita. Bergarak, azken jardunaldian, Elgoibarri egingo dio bisita. Ziurrenik domekan izango da azken jardunaldia. Han irabazi eta Deustuko Unibertsitateak galtzeko zain egon beharko dira bergararrak. Ia-ia miraria beharrezkoa izango da. Fedeari eta itxaropenari heldu behar...



**ERASOAN** Hodei Lenisoro bergararra lehen zatiko erasoaldi baten, Corazonistaseko jokalariez inguratuta. JULIO CALLEJA



**Gorka Uribe**
Bergarako kapitaina

"Bai, gaur nahiko erraz irabazi dugu partidua, nahiz eta denboraldiko azken zatia uste baino gogorragoa egin zaigun, indarrez nahiko justu gabiltza. Badakigu oso zaila daukagula igoera lortzea baina dena da posible eta ikusiko dugu".



**Mikel Plazaola**
Bergarako jokalaria

Mikel Plazaola izan zen golegile nagusia atzo, 12 golekin: "Hiru partidu berdindu ditugu eta galdutako puntu horiek erabakigarriak izan daitezke igoera ez lortzeko. Gure esku egon da igoera baina... Ea zapore onarekin bukatzen dugun, Elgoibarren irabazita".



**Gorka Ugalde**
Bergarako jokalaria

"Elgoibarren aurka irabaztera aterako gara, gure partiduan zentratuz, eta irabazten badugu orduan ikusi beharko dugu besteek zer egin duten. Edozein modutan ere, denboraldi ona egin dugu, egindako lanarekin pozik egoteko modukoa".

**ERREMONTEA** > BERGARA HIRIA

# Koteto Ezkurra eta Baleztena finalerdietarako sailkatu dira

**E.M.** > BERGARA

Koteto Ezkurrak eta Baleztenak Bergara Hiriko Erremonte Txapelketako finalerdietarako txartela lortu zuten, zapatuan jokatutako partiduan Urrizari eta Ioni 40-33 irabazi eta gero. Ezkurra izan zen partiduko onena: Doneztebeko aurrelariak bere maisutasuna erakutsi zuen.

Ezkurra eta Baleztenarekin batera ondoko bikoteak izango dira finalerdietan: Etxeberria IV.a eta Urrutia; Urtasun eta Lizaso eta Matxin IIIak eta San Miguelek osatutakoa.

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

Aroztegia
San juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

K21

• Proiektuak
• Koltxoiak
• Horma-armairuak
• Altzariak neurrira
• Ateak
• Eskailerak
• Leihoak
• Tarimak
• Egur lanak orokorrean









Eskoriatzako entrenatzaile Fernando Raso barneratzea defendatzen.




Gimnasia erritmiko erakustaldia egin zuten.



Borroka arteko kirolariak aurrez aurre.



Sagarrari haginka egiten.



Ume txikienek motor lasterketa egin zuten.

ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA

**OSPAKIZUNA** > KIROLA KALERA

# Eskoriatza kirol elkartekoek ekintza ugari kalera atera zituzten zapatuan

Areto futbol eta saskibaloi lehiak, eta borroka arte eta gimnasia erritmiko erakusketak egin zituzten

Herritar askok parte hartu zuten Eskoriatza kirol elkarteak zapatuan antolatu zuen festan

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

11:00etarako jendez bete zen Intxaurtxueta kiroldegi kanpoko plaza. Gurasoak eta umeak gertu zeuden Eskoriatza kirol elkarteak antolatutako jokoetan parte hartzeko. Txikienek sagarren eta arrautzen jokoak egiten zituzten bitartean, kantxa barruan beteranoen arteko saskibaloi eta areto futbol partiduak jokatu zituzten. Goizeko ekitaldietan parte hartu zutenak herri kirol bazkarian elkartu ziren.

**TREBETASUNAK BALOIAREKIN**

Arratsaldean beste hainbat ekintza egin zituzten. Ikusgarrienak borroka arte eta gimnasia erritmiko erakusketak izan ziren. Gainera, Eskoriatzako areto futboleko eta saskibaloiko jokalariek euren trebetasunak erakutsi zituzten baloiarekin.

Ekintza guztiak bukatuta, eguna borobiltzeko, parrillada egin zuten.

PARTE-HARTZAILEEN IRITZIAK



**Andoni eta Diego**
Saskibaloi jokalariak

Andoni eta Diego Eskoriatzako saskibaloi taldeko beteranoak dira, eta zapatuan fraka motzak jantzi zituzten. "Orain dela hamar urte utzi genuen saskibaloia, baina lagunarteko partidua denez...", esan zigun Andonik. Atseden hartzen zeuden aulkian, baina jokatzeko gogoarekin: "Bihar giharretako mina edukiko dugu, baina saskibaloia gustuko dugu, eta ezin dugu utzi".



**Gentzane, Lucia eta Xena**
Umeendako jolasetan ibili ziren

Argazkiko hiru neskatoak Intxaurtxueta kiroldegi kanpoan zegoen umeendako gunean topatu genituen. Aurpegia margotu zuten, eta marrazkia egiterako orduan egin genuen berba eurekin. "Oso pozik gaude. Orain marrazkia egingo dugu, ea beste joko batzuekin noiz hasten diren. Orain, txikienek motor lasterketak egiten dihardute", esan ziguten. Margotzea atsegin dutela, eta kirolariak direla esan ziguten. "Kirola egiten dugu, bai. Baina gaur jolastera etorri gara gurasoekin eta anai-arrebekin", esan zigun Luciak pozarren.



**Patricia, Dolo eta Josetxo**
Saskibaloi jokalariak

Patricia, Dolo eta Josetxo arnasestuka harrapatu genituen ordezkoen aulkitxoan: "Nekatu gaude", esan ziguten. Beteranoendako saskibaloi partidua jokatu zuten. "Ondo pasatzera etorri gara. Urte asko dira saskibaloia utzi genuela, baina barre egiteko eta izerditan egiteko asmoarekin etorri gara", esan ziguten barrez. Partiduaren biharamuna "gogorragoa" izango zela aitortu ziguten: "Bihar gorputza minduta edukiko dugu, baina, bihar, biharkoak. Orain ondo pasako dugu, eta eguneko beste ekintzetan parte hartuko dugu", esan ziguten.

**BOULDER** > EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

# Arroitajauregi eta Cruz, Euskal Herriko boulder txapeldunak

## Mikel Odriozola iazko txapeldunari gutxigatik egin dio ihes Euskal Herriko txapelak

## Debagoiena taldeko eskalatzaileek sekulako maila erakutsi zuten zapatuko txapelketan

**MAIDER ARREGI** > ANTZUOLA

Grabitateari aurre eginez, Euskal Herriko bosgarren boulder txapelketan sekulako ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zen zapatuan. Giroa bero-bero eta Antzuolako pilotalekua gainezka. Finalaurreko gogor baten ostean, lehia biziko finala ikusteko aukera izan zen.

Mikel Odrizozola *Plata* zestoarrak, gutxigatik, baina ezin izan zion txapelari eutsi. Iker Arroitajauregi nagusitu zitzaion elite mailan, eta, bera dugu aurtengo Euskal Herriko txapeldun berria. Oso parekatuta ibili ziren, baina, Arroitajauregi finalaurrekoan hobeto ibili izanak garaipena eman zion. Markel Mendieta arrasatearra, finalaurrekoetan bikain aritu bazen ere, finalean ezin izan zuen egindako lana borobildu; seigarren geratu zen.

20 urte azpikoen mailan, Aritz Dominguez, Debagoieneko taldeko eskalatzaileak jantzi zuen txapela. Donostiarrak, boulder guztiak egin zituen sekulako erakustaldia emanaz. Harmaila zutik jarri zuen Dominguezek txalo zaparrada artean.

**CRUZ ETA ARANBARRI, LEHIAN**

Emakumezkoetan ere lehia bizia izan zen. Azken boulderrerarte ez zen ezer erabakita egon. Azkenean, Leire Aranbarri azpeitiarrak Esther Cruzi eman behar izan zion iaz eskuratu zuen txapela. "Oso ondo ikusi dut nire burua. Aranbarri gaztea eta indartsua da; nire erreleboa da". Cruzek sekulako palmaresa dauka: Espainiako txapelduna izan da eta Euskal Herriko txapela hiru bider jantzi du. "Nire helburua ondo pasatzea da orain. Mendian eskalatzea nahi dut, familian-eta disfrutatzea".

20 urtetik beherakoetan, Itziar Zabala Aurrera taldeko eskalatzailearendako izan zen txapela. Debagoieneko taldeko neskak ordea, bikain aritu ziren. Hala, Jone Martinez eta Miriam Mulasek bigarren eta hirugarren postuak eskuratu zituzten. Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Josean Mulasek maila ezin hobea txalotu gura izan du. "Euskal Herriko eskalatzaile onenak izan ditugu. Afizioa eta gogoa badago, eta hori da garrantzitsuena aurrera egiteko".




Esther Cruz eskalatzaileak sekulako txapelketa eskaini zuen. Aranbarri gazteak puntu gutxiko aldea atera zion. MAIDER ARREGI

### Sailkapena

**ELITE MAILA**

GIZONEZKOAK
1. Iker Arroitajauregi
2. Mikel Odriozola
3. Jon Sard

EMAKUMEAK
1. Esther Cruz
2. Leire Aranbarri
3. Maddalen Mendizabal

**SUB 20**

GIZONEZKOAK
1. Aritz Dominguez
2. Jon Beñat Agirre
3. Jon Ander Bravo

EMAKUMEAK
1. Itziar Zabala
2. Jone Martinez
3. Miriam Mulas

ITURRIA: EHKO BOULDER TXAPELKETA




Elite mailako gizonezkoen podiuma: Arroitajauregi, Odriozola eta Sard. JULIO CALLEJA



MAIDER ARREGI

## Mendi bizikleta martxa jendetsua

Mundumira festaren barruan, mendi bizikleta irteera egin zuten zapatuan Antzuolan. Hiru orduko ibilbidean, zazpi geldiune egin zituzten eta Antzuolako errotak gertutik ezagutzeko aukera ere izan zuten 45 parte-hartzaileek. Adin guzietakoak bizikleta gainean, gazteenak 7 eta zaharrenak 66 urte. Uzarragatik abiatuta, 15 kilometro egin zituzten jai giroan eta taldean.

**ARETO FUTBOLA** > ZALDIBARKO TXAPELKETA

## Lasagabaster eta Dribling Zaldibarko finalean

### Finala iazko talde berdinek jokatuko dute zapatuan, 17:30ean hasita

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Lehenengo indarrak neurtu zituztenak Abokajarro eta Lasagabaster izan ziren. Lasagabaster nagusitu zen 2 eta 3ko markagailuaz, baina azken minututan bi taldeek sartutako golek partidua launa berdindu ta utzi zuten. Luzapenean, bi taldeek ez zuten golik egiterik lortu. Penaltien txanda iritsi zen eta Lasagabasterrek lau penaltiak sartu zituen, ez zuen hutsik egin. Abokajarrok, ordea, bi sartu zituen.

Dribling eta McAwen Dauen taldeen arteko neurketan, berriz, Dribling nagusitu da 6-4ko markagailuaz. Partidu osoan zehar Dribling nagusi izan zen.

**FINALA ZAPATUAN**

Finala, zapatuan, ekainaren 5ean jokatuko da Zaldibarren. 16:30ean hasita, hirugarren eta laugarren postuak jokatuko dira. 17:30ak inguruan, berriz, Lasagabaster eta Dribling taldeek final handia jokatuko dute.

> MENDI MARTXA

## Aiba! mendi martxan izena emateko aukera dago oraindik

Aiba! (Aramaio ibarrari bira Arrasatetik) Aramaioko errekak biltzen dituen tontorren ibilbidea da. Aurten, gainera, Loo tontorra igo eta Aramaio errekako ur guztiak batuz egingo dute ibilbidea.

Ekainaren 6an, domekan, Arrasateko Monterron parketik 07:00etan irtengo dira bi ibilbideak, *Mari* eta *Azpiko*.

**IZENA EMATEKO AUKERA**

Interesa dutenek, mezu bat bidal dezakete *aiba@besaide.org* helbidera edo 943 77 30 66 telefonora deituta martitzen edo eguaztenetan, 19:30etik 20:30era. Informazio guztia *besaide.org* webgunean duzue.

BERGARA

# Eskola Kirolari gero arte esan zioten Bergaran gaztetxoek

**ESKOLA KIROLA AGURTZEN** Urriaren lehenengo astera arte Eskola Kirola agurtu zuten gaztetxoek

**GIRO BIKAINA** Irakasle, gaztetxo zein gurasoek giro polita sortu zuten pilotalekuan eta guztiak pozik aritu ziren

**DOMINAK ETA GUZTI** Bukaeran Eskola Kirolean parte hartzeagatik dominak eta kopa eman zieten gaztetxoei

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Maiatza-ekaina bitartean Eskola Kirolari agur esateko garaia iristen da eta horrela egin zuten Bergara, Antzuola eta Elgetako neska mutilek egubakoitz arratsaldean.

Gaztetxo ugari elkartu zen Bergarako Udal Pilotalekuan. Herri kirolak praktikatu zituzten han: txingak, lokotxak, soka-tira, zaku lasterketa, pilota... Gainera, musikak giroa alaitzen zuen eta gaztetxoak primeran aritu ziren jolasean.

Maila desberdinak daudenez bi txanda egin zituzten. Batetik, 17:15ean, benjaminak aritu ziren. Lehenengo talde horretan 108 neska-mutiko animatu ziren kirola egitera. Bestetik, 18:15ean, alebinen txanda iritsi zen. Horiek ere ehun lagun inguru ziren.

Txanda bakoitzaren ostean, dominak eta kopa banatu zituzten antolatzaileek. Benjaminetan Aranzadi 1 taldeak eraman zuen kopa, eta alebinetan Antzuola B taldeak. Horrez gainera, partehartzaile guztiek opari bana jaso zuten.

**GERO ARTE ESKOLA KIROLARI**

Bergaran ez ezik, Leintz Eskola Kiroleko haurrek ere agurtu zuten Eskola Kirola zapatuan. LH 1etik LH 4.mailara bitarteko ikasleek *Orienting froga* egin zuten eta LH 5etik DBH 2.mailara arteko ikasleak Urkulura joan ziren bizikletan. Ondoren sari banaketa egin zuten herriko plazan. Beraz, ondo pasa oporretan eta txintxoak izan!



N.O.

**Antzuola B.** Jon, Helene, Kepa, Aritz, Mikel, Josune eta Jon.



N.O.

**San Martin A.** Irati, Lorea, Maite, Marina, Maria, Miren Tx. eta Miren C.



N.O.

**Elgeta.** Jone, Ainara, Veronica, Irune, Unai, Andoni, Etor, Javi eta Gari.



N.O.

**Antzuola A.** Amaia, Unai, Manex, Ane, Jon, Aiert, Xabier eta Xabier.

ZER DUZU ESKOLA KIROLETATIK GOGOKOEN?



**Javi eta Gari**
Elgeta

Javi eta Gari Elgeta taldeko kideak dira eta alebinen txandan zeuden. Jokatzen hasi aurretik izan ginen eurekin. Gaztetxoek esan zigutenez, futbola, beisbola eta saskibaloia dute Eskola Kiroleko kirolik gogokoenak.



**Josune eta Nagore**
Antzuola

Bi neskatila horiek benjaminen txandan zeuden. Nagoreri saskibaloia da Eskola Kiroletik gehien gustatu zaion kirola. Josuneri aldiz, futbola. Esan zigutenez, pena pixka bat dute Eskola Kirola bukatzen delako.



**Iker eta Jon**
Mariaren Lagundia A

Futbola, pilota eta eskubaloia dute gogokoen bi gaztetxo horiek. Atseden labur batean hitz egin genuen eurekin eta esan zigutenez Eskola Kirola bukatzeak ez die penarik ematen oporretan hobeto daude-eta.



**Aritz**
Antzuola

Aritz Antzuola taldeko kidea da. Eskola Kiroletik gehien gustatu zaion kirola futbola izan da. Gaztetxoak azaldu zigunez "alde batetik gogoa daukat bukatzeko baina bestetik pena ematen dit ondo pasatzen dugulako"



**Irati, Irati eta Oihane**
Aranzadi

Hiru gaztetxo horiek oso ondo pasatzen zeuden egubakoitzean eta hori euren aurpegietan islatzen zen. Esan zigutenez, Eskola Kiroletik maisua da gehien gustatu zaiena oso gustura egon direlako berarekin.

Jose Luis Korta eta Iñaki Perurena > Arraunlarien entrenatzailea eta harri-jasotzailea

# "Erraz lortzen diren gauzak dira balio txikiena dutenak"


Jose Luis Korta eta Iñaki Perurena, eguaztenean MUn egin zuten mahai-inguruan. XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Mondragon Unibertsitateko kirol zerbitzuak gonbidatuta Jose Luis Korta (Orio, 1949) eta Iñaki Perurena (Leitza, 1956) izan ziren joan den astean Arrasaten, *Arrakastaren bidean, lidergoa eta motibazioa* izenburuaren inguruan antolatutako mahai-inguruan esku hartzen. Berba egiteko arazo barik, gai horiek eta beste asko izan zituzten ahotan.**

**Has gaitezen hasieratik. Zelakoak izan ziren zuen hastapenak? Zelan hasi zineten arraunean edota harria jasotzen?**

Korta: Besterik ez nuelako hasi nintzen arraunean. Etxean jan egin nahi bagenuen itsasora atera behar genuen arrantzan, eta huraxe zen ikusten genuen kirol bakarra, arrauna. Urtean behin Espainiako Itzulian pasatzen ziren ziklistak ikusi, baina besterik ez. Hiru egun lehenago gertu egoten ginen Loroño eta Bahamontes ikusteko.

Perurena: Gauza bat kontatuko dut. Aspaldi irakurri nuen liburu bat *Los forzudos del mundo* izenekoa, liburu ederra. Baina indar fisikoaren gainean berba egin beharrean barruko indarraz egiten zuen berba. Hura abiapuntu hartuta nik ere liburutxo bat idatzi nuen, eta honako esaldi hau jarri nion sarreran: zailtasuna errazten duen erraztasun zaila, zaletasuna.

Hala, izenburuan jarri dituzuen hiru hitz horiek niri ez didate balio.

**Zergatik hori?**

Nik ez nuen motibaziorik behar, nik gogoa nuelako, harri gosea. Akaso, atzetik etorri direnek errazago izan dute dena, semeaz ari naiz, eta hark bai behar du motibazioa aurrean jarraitzeko, baina nik sekulako harri gosea nuen. Hala, harriak jasotzen hasi aurretik nik neuk egiten nituen harriak. Arrakasta, berriz, ez da helburua, ondorio bat da, lana ondo egitearen ondorioa. Eta, lidergoaren gainean, nire nahia harria jasotzea zen, ez lider izatea.

**Dena dela, goi mailara iristeko zaletasuna ezinbestekoa izango da, ala?**

Korta: Ez dakit zer esan, beste zerbait ez genuelako egin genuen guk arraunean aurrera. Lehenengo estropadak txikitan arrebarekin egiten nituen, eta ni baino nagusiagoa zenez erraz irabazten zidan. Horrekin motibatzen nintzen.

Perurena: Ni uste dut aparteko zaletasuna izan gabe ere badaudela goi mailara iritsi direnak, eta munduko onenak izatera ere iritsi dira. Adibide bat emango dut, Indurain. Indurainek egin duena egin du sekulako dohainak zituelako, eta sufritzen bazekielako. Baina esango nuke ziklismoa utzi zuenean ez zuela aparteko penarik hartu.

**Zelan motibatzen dituzue ondokoak?**

Korta: Nik neuk egiten dudana eurek egin dezaten eskatuz. Jendea motibatzeko konfiantza izan behar dute zugan, eta egiten duten lanagatik sari bat izan behar dute, bestela jai duzu. Zuk kirolariei egurra ematen badiezu, eta gero janik eman ez... Ni enpresako enkargatua banintz, langile fina saritu egingo nuke, duda barik.

Perurena: Lehen ere esan dut nik ez nuela motibaziorik behar, baina semeak bai. Inaxiorekin askotan egiten dut talka. Pentsa, elkarrekin entrenatzen gara, lan batera egiten dugu, eta asteburuan furgoneta hartu eta hor joaten gara, herriz herri. Inaxiok izan duen arazoa da 5 urte zituenetik jendeak aitak egindako marken gainean galdetu diola. Eta ni bi gauza erakusten ahalegindu naiz, lehena harriarekin gozatu egin behar duela, eta bigarrena ahaztu ditzala jendearen komentarioak. Baina ez da erraza. Eta talka egiten dugu Inaxiorendako %100 ematea niretako %95 ematea delako. Orduan haserretzen gara. [Barre]

Korta: Izan ere, gaur egungo gazteek gauzak oso erraz izan dituzte, baina orain arte. Hemendik aurrera guk baino zailago izan behar dituzte.

**Jose Luis, askotan egin duzu talde bat txarrenean hartu eta onenean utzi. Zelan egiten da hori?**

Korta: Hori ez da zailena, zailagoa da onenean mantentzea. Izan ere, behetik gora datozenak motibatzea ez da horren zaila, baina dena irabazita dagoenean zelan motibatu kirolariak? Hori zailagoa da. Nik hamarra eman dezakeenari hamarra eskatzen diot, zortzia eman dezakeenak ezingo duelako inoiz hamarrik eman. Baina hamarra eman dezakeenak zortzia ematen dueneán... hori ez diot onartzen.

Horrelakoetan, baina, benetako balioa zerk duen izan behar dugu garbi. Nik Orion jarraitu izan banu, Kontxako bandera askoz gehiago izango nituzkeen, taldea eginda zegoelako. Baina niretako askoz ederragoa da taldea behean hartu eta goraino eramatea. Bizitza honetan zerbait ikasi badut da erraz lortzen diren gauzek ez dutela balio handirik.

**Lidergoaren gainean ere galdetuko dizuet: zer da lider ona izatea?**

Perurena: Nik zalantza handiak ditut lidergoaren gainean. Gaur egun enpresetan-eta ikastaro mordoa egiten dira lider ona izaten jakiteko, irabazle izateko... Arrakasta lehenengoak du. Eta bigarren edo hirugarren izateak ez du balio? Noiz ikasi behar dugu bigarren izatea ez dela porrota?

**Amaitzeko, Korta, kirolean bizi izan duzun egunik txarrena zein izan da?**

Korta: Txarrena? denak! [Barre]. Pentsa, ondoan dagoenak 300 kiloko harria altxa nahi, eta ezin. Eta ni bandera irabaztera joan eta esku-hutsik buetatu. Horiek dira egun txarrak.

MOTIBAZIOA

**Perurena: "Gaztetan nik ez nuen harria jasotzeko motibaziorik behar; gogoa nuen, harri gosea"**

LANA SARITU

**Korta: "Arraunlariak motibatzeko saritu egin behar dituzu, eta euren konfiantza izan"**

ETORKIZUNA

**Korta: "Orain arte gazteek gauzak oso erraz izan dituzte, baina hemendik aurrera guk baino zailago izan behar dute dena"**

**ELIKADURA** > MASTEKATZEA

# Hortzak ondo hazteko ezinbestekoa da umeek mastekatzea

Egindako zenbait ikerketak erakusten dute umeek gehiago mastekatuko balute, ortodontzia gutxiago beharko lituzketela



Neskatila fruta jaten. BRUCE TUTEN

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Mastekatzea ezinbestekoa da umetan hortzak ondo hazteko. Gaur egun, ume askok moldeko ogiarekin egindako ogitartekoak jaten dituzte, purean eskaintzen dizkiegu hainbat elikagai, eta mastekatzen errazagoa direlako okela hanburgesa edo saltxitxa formatuan ematen diegu. *Consumer* aldizkariak argitaratutako artikuluaren arabera, elikagai bigun horiek ez diote inongo mesederik egiten umeen hortzen garapenari. "Askok ortodontzia behar izaten dute. Komenigarria litzateke txikien menuetan atzera ere elikagai naturalak berreskuratzea", irakur daiteke.

**IPUINA AUKERATZEKO**

Azenarioak, pepinoak, sagarrak, intxaurrak, ogia, zerealak, arroza, pasta, urdaiazpikoa... elikagai hauek guztiak egokiak dira adin batetik aurrera umeei eskaintzeko. Gainera, mastekatzeak asetze sentsazioa areagotzen du eta egun haurren artean nagusitzen ari diren gizentasun arazoei aurre egiteko formula interesgarria da. Gurasoendako gomendioa, beraz, argia da; poliki-poliki mastekatzekoak diren elikagaiak eskaini behar zaizkie umeei. Elikagai bigunak erosoagoak izan daitezke, baina epe luzera arazoak eragin ditzakete hortzerian. Dentistek emandako aholkua da.

**HEZKUNTZA** > PSIKOLOGIA

## Seme-alaben estres egoerak nola lagundu gainditzen

**L.Z.** > ARRASATE

Gurasoen banaketa, gertuko baten heriotza, eskola porrota, zailtasunak lagunartean... estres iturria izan daitezke eta adin txikikoek ere pairatzen dute. Adituek diote laguntza egokia eskaini ahal izateko garrantzitsua dela arazoaren iturria lokalizatzea. *Guraso.com* atarian, gaiaren inguruan Dani Arizalaren *Ilargipean* saioan egindako tartea entzuteko lotura duzue.



Ume bat negar egiten. GWIR

**SINTOMAK ANTZEMATEKO**

Gogo gutxirekin egotea, kontzentrazio falta, norberaren burua gutxiestea, eskola porrota, lagunekin arazoak izatea... egoera horiek luzaroan gertatzen badira, gure seme-alabari zerbait gertatzen ari ote zaion galdetu behar diogu gure buruari.

Garrantzitsua da, horrelakoetan ere, familia eta eskola harremanetan egotea. Gazte horri baliabideak ematea errazagoa izango da horrela.

Hartu beharreko neurriak ezberdinak izango dira seme-alabaren adinaren arabera. Estres egoerei aurre egiteko baliabide gehiago ditu hizkuntza menperatzen duen ume batek menperatzen ez duen batek baino. Gauza bera gertatzen da garapen kognitiboarekin; hau da, gauzak ulertzeko gaitasunarekin. Gutxienez, 5 urte bete arte umeek heldu baten laguntza behar dute estresa eragiten dieten egoerak gainditzeko.

**OSASUNA** > LOA

## Bi urtetik beherakoendako ohe burkorik ez ipini

**L.Z.** > ARRASATE

Atsedenak eragin handia du txikien garapenean eta hazkuntzan, horregatik da garrantzitsua zenbait gomendio kontuan hartzea.

Neurriko ohea, segurtasun neurriak betetzen dituena, koltxoi egokituarekin eta ohe burkorik gabekoa. Hori gomendatzen dute adituek. Ez dute ohe burkoa bi urte bete arte gomendatzen, eta orduan ere ez du lodia izan behar.

**AMAREKIN LO EGITEA**

Informazio hori guztia *Consumer* aldizkariko artikulu baten aurkitu dugu. *Guraso.com* atariko irakurle batek, ordea, faltan igarri du artikuluan haurrek amarekin lo egiteko aukera aipatu izana.

Aukera "guztiz naturala eta osasuntsua" dela adierazi digu bere ekarpenean. Segurtasun neurri horiei buruzko informazioa eskatu du, eta saiatuko gara lehenbailehen ematen.

**HEZIKETA** > PSIKOLOGIA

## Ume txikiek maiteminduta daudela esaten dutenean

**L.Z.** > ARRASATE

Zenbait guraso harritu egiten dira lauzpabost urteko semealabek maiteminduta daudela esaten dietenean. Ez dute, gainera, "maiteminduta nago" esaten. Hau edo bestea "maite dut" esan ohi dute.

**SENTIMENDUAK IKASTEN**

Jose Luis Pedreira psikiatrak eta psikoterapeutak dio umeak ez direla pubertarora arte maitemintzen, "ez daude biologikoki prestatuta". Adituaren esanetan horrela adierazten dira lagunen artean baten batekin bereziki ondo konpontzen direnean. "Aurrerago bereiziko dituzte sentimenduak", dio Pedreirak.

Semea edo alaba horrelako adierazpenekin etortzen zaigunean entzun egin behar ditugu errespetu osoz; barre edo iseka eginez gero min egin diezaiekegu. Batez ere, baina, ez kezkatu.



Bi ume musua ematen. EMILIO DEL PRADO

> HEZKUNTZA

### Eusko Jaurlaritzak 'Testuliburuen kudeaketa solidarioa' izeneko programa ipini du martxan

Programa Lehen Hezkuntzako maila guztietan erabiltzen da. Mailegu programa bat da; ikasturte amaieran, berrerabil daitezkeen testuliburuak ikastetxera ekarri behar dira ondorengo urteetan erabiliak izan daitezen, eta, beraz, liburuok zaindu egin behar dira.

Ikasle bakoitzak diru kopuru bat ordainduko du testuliburuak erosteko, eta Hezkuntza Sailak benetako prezioa ordaintzeko falta dena ipiniko du. Hondatutako liburua ikasleak ordainduko du.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> ARAMAIO**
Eskolarteko bertso txapelketan ere, aramaioarrek eskuratu dute garaipena **> 32**



**> ARRASATE**
Kantu hurbilak eta omenaldi pertsonala Dirty Brothers taldearen disko berrian **> 33**



**> OÑATI**
Trinitate jaietan bat egin zuten Araotzen bertako jatorria duten hainbat belaunaldik **> 39**




Bartzelonako Ojos de Brujo taldearen kontzertua izan da ekitaldi jendetsuena; eskolako jolastokia jendez bete egin zen kataluniarren flamenko, hip-hop eta rumba doinuak entzuteko. JULIO CALLEJA

# Ojos de Brujorekin seigarren arrakasta lortu du Mundumirak

**JENDETZA** Aurreikuspenak bete egin dira eta 20.000 pertsona inguru etorri dira Antzuolara

**ANTZUOLARREN BABESA** Herritarren inplikazioa eta laguntza azpimarratu dute antolakuntzakoek

ARRITXU BARRUSO > ANTZUOLA

Aurtengoa erronka handia zen; 2.100 biztanle inguruko herri txiki batean, Antzuolan, Mundumira bezalako jai erraldoia antolatzea. Bada, Antzuolak eta antzuolarrek ederki bete dute euren lana eta munduko kulturen jaiak bere seigarren arrakasta lortu du aste bukaera honetan.

**UME, GAZTE ETA HELDUENDAKO**

Zapatu goizean hasi zen festa Antzuolan. Goiz eta eguerdi partean familiek hartu zituzten kaleak, artisau postuak ikusi, umeek jolas egin eta mundu guztiko zaporeak probatzeko.

Iluntzean, berriz, gaztez betetako *autobuskadak* iristen hasi ziren. Ojos de Brujo taldearen kontzertua ikustera zetozen gaztiak; zalantza barik Mundumirako ekitaldi jendetsuena izan zen. Antolatzaileen esanetan 3.500 pertsona inguru batu ziren eskolako jolastokian. Bartzelonatik iritsitako taldearen flamenko fusionatua gustura hartu zuten ikusleek eta txalo eta dantza artean festa giroa piztu zen.

Atzokoa egun lasaiagoa izan zen. Dena dela, eguerdi partean jende dezente gerturatu zen Antzuolara; horren adierazle da bi orduan 1.050 txahal pintxo banatu zirela. Arratsaldean, Beningo Gangbe Brass Band eta Euskal Herriko Tacumah Reggae Band taldeen kontzertuekin esan zuen agur aurtengo Mundumirak.

**POLTSIKOAK MINDUTA**

Antolatzaileen esanetan bisitarien aurreikuspenak bete egin dira eta 20.000 pertsona inguru etorri dira Mundumirara aste bukaera guztian. Baina saltzaileen aurreikuspenak, antza, ez dira bete. Artisauek uste baino gutxiago saldu dute eta gobernuz kanpoko erakundeek ere diru gutxi jaso dutela azaldu dute. Anelkarrek, Antzuolako kirol elkarteak eta Oinarin dantza taldeak ipinitako txosnan ere edaria eta ogitartekoak soberan geratu zaizkie.

GARRAIO PUBLIKOA

## Zapatu arratsaldean, atzerapenak

Mundumirako antolatzaileek kanpaina indartsua egin zuten aurreko asteetan garraio publikoaren alde. Hori horrela, askok eta askok, aholkuei kasu eginez, Antzuolara autobusez joatea erabaki zuten. Antolatzaileen esanetan oso pozik daude garraio publikoa "oso ondo" ibili zelako, orokorrean. Zapatu iluntzean izan zen arazo gehien; Bergaran ia bi ordu itxaron behar izan zuten autobusa hartzeko. Oñati aldean ere haserre zeuden Antzuolara joan etorria egiteko lau autobus hartu eta ordaindu behar izan zituztelako.

OJOS DE BRUJO

## Dantza eta parranda flamenkoarekin

Ojos de Brujo taldearen kontzertua izan da, zalantza barik, ekitaldi jendetsuena. Eskolako jolastokia topetaraino bete zen zapatu gauean. Gose taldeak trikiti elektronikoarekin berotu zuen giroa eta ondoren flamenkoa dantzatzeko momentua iritsi zen; baina, ez flamenkoa bakarrik, baita rumba, reggae edo hip-hopa ere. Izan ere, Bartzelonako Ojos de Brujo taldearen ezaugarri nagusia fusioa da. Euskal Herrian, beharbada, flamenkoak jarraitzaile gehiegi ez dituen arren, ikusleek gustura hartu zituzten doinu dantzagarriak.

BALORAZIOA

## Ia perfektua, antolatzaileen esanetan

Mundumira jaialdiko antolatzaileak "oso pozik" daude aste bukaerak emandakoarekin: "Oso arrakastatsua izan da; aurreikuspenak bete egin dira eta jende asko gerturatu da Antzuolara. Antzuolarren harrera eta inplikazioa ere harrigarria izan da, erabatekoa. Ekitaldi guztiak egin dira arazo barik. Esan daiteke ia perfektua izan dela. Garraio publikoak ere oso ondo lan egin du orokorrean, momentu puntual batzuetan atzerapenak egon badira ere", azaldu digu Iñaki Rekalde Euskal Herria aldizkariko zuzendariordeak eta antolakuntzako kideak.



Bergarako Labegaraietako autobus geltokian ilara luzeak egin ziren zapatu arratsaldean.



Neska mutikoek ere izan zuten zerekin gozatu.



Txahal erre pintxoek sekulako arrakasta izan zuten.




Mundu guztiko doinuak entzuteko aukera eskainizuen Mundumirak, tartean, perkusio afrikarra.



Ojos de Brujo taldearen kontzertuarekin eskolako jolastokian topetaraino bete zen.



Mundumiran urtero ikusten dira asmakizun harrigarriak.

## INKESTA



**Iñaki Cid**
Eibar

"Mundumirara natorren lehenengo aldia da. Goizean boulder txapelketan parte hartu dut eta orain zerbait jatera etorri gara. Argentinako xerra eskatu dugu, baina oso gogorra zegoen".



**Aiur eta Elena**
Bergara eta Aramaio

"Olioarekin funtzionatzen duten ontzitxoak erosi ditugu; eskuz egindakoak dira, txaparekin. Orain etxera joan eta bainuontzian ontzitxoak frogatzeko gogoarekin gaude. Azken urteetan beti etorri izan gara Mundumirara eta asko gustatzen zaigu".



**Hamid Oukoulou**
Aljeria

"Aljeriako gozoak saltzen ditut. Oraindik jendea lasai xamar dabil eta ez dute asko erosi. Mundumirara natorren lehenengo aldia da eta asko gustatu zait; jende oso jatorra ezagutu dut".



**Luis Mari Zaldua**
Urnieta

"*Turismo arduratsua* izeneko liburua aurkeztera etorri gara eta orain festaz gozatuko dugu apur bat. Dena dela, Urnietan jaiak dira beraz, segituan herrira itzuliko gara; gure jaietara".



**Jose Mari eta Uribarri**
Elgeta

"Pasa den urtean Eskoriatzara joateko gogoarekin geratu ginen eta aurten egunpasa etortzea erabaki dugu. Oso giro polita dago eta oraingoz asko gustatu zaigu ikusi eta dastatu dugun guztia; Argentinako haragia jan dugu eta Marokoko pastak ere probatuko ditugu".





Gose taldeak kontzertua eman zuen.



Mutikoa tirolinan.



Urtero moduan ilada luzeak egin behar izan ziren kebab preziatuak jateko.



Zapatuan bazkalorduan.



Neska-mutikoak aho zabalik utzi zituen xaboi-burbuila erraldoiak egiten zituen mutilak. ARGAZKIAK: JULIO CALLEJA

## DATUAK

# 20.000

**BISITARI**

Antolatzaileen esanetan aurreikuspenak bete egin dira. Ojos de Brujo taldearen kontzertuan, bestetik, 3.500 pertsona inguru batu ziren.

# 1.050

**PINTXO**

Domeka eguerdian gau guztian erretzen egondako txahalarekin egindako pintxoak banatu zituzten. Arrakasta itzela izan zen; bi orduan 200 kilo haragi banatu zituzten.

# 140

**BOLUNTARIO TXOSNAN**

Antzuolako kirol elkarteak, Oinarin dantza taldeak eta Anelkar elkarteak txosna ipini zuten edaria eta bokatak saltzeko. Herritar askoren laguntza izan zuten.

# 3.000

**BOKATA**

Zapatuan 2.000 bokata eta domekan 1.000 saltzea aurreikusten zuten txosnan. Krisia baina, nabaritu da Mundumiran ere, eta erdia soberan geratu zaie.

## ESANAK

**"Harrigarria izan da Antzuolako herriak nola erantzun duen; inplikazioa erabatekoa izan da eta harrera bikaina egin diote Mundumirari"**

**Iñaki Rekalde** > Antolakuntza

## INKESTA



**Maddi, Raul eta Oihan**
Gopegi

"Azken urteetan beti etorri izan gara Mundumirara. Lagun taldea etortzen gara, guztiok umeekin. Seme-alabak izanda, lagun artean eguna pasatzeko modu aproposa da. Nagusi zein umeendako gauzak daude eta oso ondo ibiltzen gara urtero. Gainera beste herrialde batzuetako musika eta janaria ezagutzeko aukera polita da. Arratsaldean etxera itzuliko gara, jende gehiegi egongo da-eta".



**Argeli, Jasone eta Amaiur**
Antzuola eta Urretxu

"Mundumira festara gatozen lehenengo aldia da. Argeli antzuolarra izanda bera bisitatzera etorri gara eta bide batez festa ezagutzera. Asko gustatu zaigu jaia nola dagoen antolatuta eta giro bikaina dago. Orain atseden hartu eta pintxo *morunoak* eskatu ditugu zerbait desberdina jatearren. Espezie asko dituzte eta zaporea desberdina da baina, oso gozoak daude".



**Saioa, Ihart eta Aitor**
Santurtzi

"Aste bukaera pasatzera etorri gara. Orain dela bi urte ezagutu genuen Mundumira eta asko gustatu zitzaigun. Pasa den urtean Eskoriatzan ere izan ginen. Jai oso polita iruditzen zaigu, gauza asko uztartzen dituelako; beste herrialde batzuk ezagutzeko aukera ematen dizu eta alde solidarioa ere hor dago. Janariak ere garrantzia dauka, dagoeneko probatu ditugu zenbait gauza".

**BERTSOLARITZA** > ARABAKO ESKOLARTEKO BERTSO TXAPELKETA

# Eskolarteko txapelketarekin 'tripletea' aramaioarrendako

Eskolarteko bertso txapelketa irabazi zuten Aramaioko gaztetxoek zapatuan Legution; gazteen mailan Xabi Igoak jantzi zuen txapela

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Arabako eskolarteko bertso txapelketa poltsikoratuta, Aramaiok hirutik hiru irabazi ditu bertsotan: zapatukoan bi sari eta hirugarrena Arabako Koadrila Arteko I. Bertso Txapleketan.

Oraingo zapatuko finalean Gasteiz eta Legutioko bertsoeskolen aurka lehiatu ziren. Talde bakoitzak lau oinak emandako bina bertso bota behar izan zituen. Azkenean, Jon Izaga, Peru Abarrategi eta Peio Arriolabengoak jantzi zuten txapela. Era berean, Euskal Herriko eskolarteko finalerako sailkatu zen Peru Abarrategi, Maddalen Arrausi gasteiztarrarekin batera. Finalaren ostean herri bazkaria egin zuten eta bertso-eskolen arteko herri kirolak izan ziren.





Ezkerrean, zapatuan Legution jokatutako gaztetxoen finaleko irudi bat. Eskubian, Xabier Igoa txapelarekin. BERTSOZALE ELKARTEA

**XABI IGOA TXAPELDUN**

Arratsaldeko saioari dagokionez, gazteen bat-bateko finala jokatu zuten. Maiatzaren 15etik izan diren kanporaketetan 14-18 urte bitarteko 26 lagun izan dira lehian, eta zapatuko finalera zortzi lagun iritsi ziren. Arrizalako Bingen Sainz, Amurrioko Ainhoa Comas eta Xabi Igoa aramaioarra sailkatu ziren azken fasera eta Xabi Igoak irabazi zuen. Hala, ekainaren 19an Agurainen izango da, Euskal Herriko eskola arteko finalean.

> ARRASATE

### Pare bat kontzertu interpretatuko ditu Arrasate Musikalek

Oraingo asterako pare bat hitzordu egin dituzte Arrasate Musikaleko musikariek. Bihar (martitzena) da bata: gitarra ikasleen kontzertua. Kulturaten izango da, 18:30ean.

Bigarrena, berriz, asteburuan izango da. Kasu horretan gobernuz kanpoko Harreman erakundearen Elkartasun Egunean parte hartuko du banda txikiak. 19:30ean egingo dute kontzertua, Seber Altube plazan.

> OÑATI

### Kantu eskolarako aurre-matrikula zabalik dago

Bihar, martitzena, zabalduko dute Ganbara kantu eskolako aurre-matrikula egiteko epea, ekainaren 3ra arte. 3-18 urte bitarteko edozeinek eman ahal du izena, honako talde hauetako batean jarduteko: kantu tailerra, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte.

Azpimarratzekoa da, esaterako, lehen aldia dela 3 urteko umeek tailerrean parte hartzeko aukera izango dutena.

**KIROLA** > JANARIAREN GARRANTZIA

# Elikadura eta kirola

**DABID BEREZIBAR**

Kirolari garenok hiru alderdi izan behar ditugu kontuan. Lehenik, entrenamendua: kargak, intentsitateak... Bigarrenik, errekuperaketa: atsedena, loa ... Eta hirugarren alderdia elikadura da: noiz jan, zenbat, zer, karbohidratoak, proteinak...

Kirolari nahiz kirolari ez denak zaindu beharrekoak dira ezinbestez, helburua dena delako izanda ere: argaltzea, lehiaketara indarrez heltzea edo galdutakoa errekuperatzea. Oraingoan, hirugarren alderdi horri helduko diogu.

**EGUNEAN BOST JATORDU**

Egunean zehar bost jatordu egitea gomendatuko nuke, eta jatordu batetik bestera hiru ordu baino gehiago ez pasatzea. Era horretan, odoleko azukre maila orekatuta mantentzen da. Odoleko azukre maila asko igotzen bada insulina asko jariatzen du eta giharretako glukogenoa bete ondoren bestea koipe gisa biltzen da.

Esaterako, karbohidratoak (pasta, arroza, zerealak) goizean edo eguerdian jatea komeni da, energia ematen duten jakiak baitira, beraz egunean zehar erabiltzeko aukera dugu. Gauean janez gero, energia hori erabiltzen ez dugunez, koipe gisa bil daiteke. Beste bitxikeria bat ere badago gauean karbohidratoak jatearen gainean: lo gaudela haziera hormona jariatzen dugu, eta hormona horrek koipeak erretzen laguntzen du. Karbohidratoek haziera hormona gorputzera gutxiago askatzea eragiten dute.

Hori ikusita gauerako proteinak utziko nituzke: oilasko zein atun ensalada, filetea, untxia, tortilak...

**Karbohidratoak goizean edo eguerdian jatea komeni da**

Kirola egin eta lehenengo 30 minututan giharrak elikatu egin behar dira. Hori da momentu egokiena giharrak glukogenoz betetzeko, beraz, indize gluzemiko altua duten jakiak hartzea komeniko litzateke: patatak, ogia, eztia, edari isotonikoak, etxean eginiko fruta batidoa azukrearekin...

**KIROLA EGIN AURRETIK**

Kirola egin aurretik, mendi irteera, bizikleta ibilaldiren bat, txapelketa bat, hiru ordu lehenago jan behar da, jandakoa odolera pasatzeko denbora tartea horixe baita. Horrelakoetan ez da komeni proteinarik jatea, urdailean lau-bederatzi ordu geratzen baitira eta, hortaz, ez genuke horien energia aprobetxatuko. Onena karbohidratoak jatea da: arroza, pasta...

Lance Armstrongek gutxi egindako pasta jaten du, xurgapena denboran luzatzen delako, eta ondorioz energiak denbora luzeagoan irauten diolako.



Lance Armstrong txirrindulari txapeldunak gutxi egindako pasta jaten du. GOIENKARIA

KALORIEKIN BORROKAN

Ostiral gauean:
- Lau garagardo edatean: 227 kaloria bakoitzak, beraz, 908 kaloria guztira.
- Patata frijitu batzuk jatean: 215 kaloria.
- Bokadilo edo pizza bat jatean: 694 kaloria.
- Guztira: 1.826 kaloria. Hori guztia erretzeko 80 kg.ko pertsona batek 21 km.ko korrikaldia egin behar du.

Gorputzak bizitzeko behar duen kaloria kopuruari metabolismo basala deitzen zaio.

Nola kalkulatu?

66+(13,7 x zure pisua kilotan)+(5 x zure altuera zentimetrotan)+(6,8 x zure adina).

35 urteko gizon batek, 70 kg pisatzen duelarik eta 175 cm neurtu, zenbat kaloria behar ditu? 66+(13,7 x 70) + (5 x 175) + (6,8 x 35)= 2.204 kaloria.

Kirola eginez gero, konstante batzuegatik biderkatu behar da: 3 aldiz x 1,375, 4 aldiz x 1,55 eta 6 aldiz x 1,725.

**Atal honetan...**
Astero-astero, Arizmendiren eskutik, intereseko gaiei buruzko aholkuak.
Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

GURE TALDEAK

## Dirty Brothers



Ezkerretik eskuinera, Asier Sala, Jokin Azpiazu, Aitor Aginagalde, Jon Alkorta eta Jon Olaziregi. DIRTY BROTHERS

# "Bertsioak egiten hasi ginen, eta bertsioak dira nagusi diskoan"

Dirty Brothers arrasatearrek lehen diskoa kaleratu dute; eurek sortutako sei kantu eta bertsioak grabatu dituzte Aretxabaletan

Punk-rocka da lan berriaren oinarria, baina beste estilo batzuetako ukituak ere entzun daitezke; besteak beste, ska-reggae eta country doinuak

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Jon Olaziregi, Aitor Aginagalde, Jokin Azpiazu, Asier Sala eta Jon Alkorta dira Dirty Brothers taldeko kideak. *Dirty sound for dirty people* izeneko diskoa kaleratu dute. Eurekin egin dugu berba lan berriaren gainean.**

**3 aretoan aurkeztu zenuten zuen lehen diskoa. Gustura zaudete emaitzarekin?**

Bai. Berezi samarra dela esan dezakegu, guk sortutako abestiez gain bertsio asko sartu ditugu-eta. Horietako batzuk, gainera, era akustikoan grabatu ditugu.

Bestalde, gure abestietan, gustatzen zaizkigun musika estiloak islatzen ahalegindu gara; hain zuzen ere, betiko punk-rocka, ska-reggae eta country doinuak aurki daitezke. Baina onena diskoa entzutea da!

**Diskoko kantu gehienak bertsioak dira. Zergatik?**

Hasiera baten, bertsio talde moduan sortu ginen. Ondoren, kantuak sortzen hasi ginen. Hasierako asmoa bertsioak eta guk idatzitako bi kantu grabatzea zen. Baina estudioan sartu ginenean, erritmo batzuk landu, eta guk sortutako sei kantu grabatzea erabaki genuen.

**Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?**

Oso zaila da galdera horri erantzutea. Taldeko kide bakoitzak erreferentzia ezberdinak ditu. Dena den, egiten ditugun bertsioetan ikus daiteke zeintzuk diren; besteak beste, RIP, Cock Sparrer, Iskanbila eta The Clash.

**Non grabatu duzue diskoa?**

Lazkano musika dendak Aretxabaletan duen estudioan egin dugu grabazioa. Banaketa, aldiz, gure kontura egiten ari gara, inguruko herrietako tabernetan utziz, kontzertuetan salduz...

**Non dago salgai?**

Arrasateko Etxoste, Iluntz, Irati eta Ekaitz tabernetan.

**Talde berria zarete. Nola ikusten duzue musika taldeen egoera Debagoienean?**

Talde berria izan arren, taldeko kideok denbora luzea daramagu musikan. Egun, itxura ona hartzen diogu musika taldeen egoerari. Egunetik egunera talde berriak sortzen dira, eta hori pozgarria da!

**Zaila da tokia bilatzea talde berri batendako?**

Guk ez dugu arazo handirik eduki kontzertuak lotzeko. Dena den, diskoa kaleratu dugunetik zuzenekoak egiteko aukera gehiago ditugula konturatu gara.



### Kantu hurbilak eta omenaldi pertsonala

Ez nuen halako emaitza espero eta txundituta gelditu naiz. Tabernan, lagun artean apaltasunez idatzitako istorio eta kantuak dira, baina mimoz borobilduta daude eta kantu propioen emaitza oso txukuna da –bertsioena ezaguna genuen–.

Oinarri akustikoa duen taldea da, apur bat gogortu dena, baina Joe Strummerren arima beti presente du, eta gai da punk-rockaren funtsa countryari, rock-and-rollari, ska-ri edo Alemaniako punk-rock melodikoenari nostalgia puntu ederraz gehitzeko.

**Iker Barandiaran**

**2009an elkartu zineten bertsioak egiteko. Taldeak bilakaerarik izan du?**

Taldea sortu genuen ondo pasatzeko asmoarekin, lagun artean barre egiteko, eta musikaren bidez barruan genuena ateratzeko gogoa genuen.

Ordutik hona aldaketa batzuk egin ditugu. Kide batzuek (Sala, Aitor eta Alkorta) kontzertu akustikoak egin zituzten. Ondoren, gure musikari indar handiagoa emateko, bateria jotzailea (Olaziregi) eta gitarra jotzailea (Jokin) elkartu ziren gurekin.

Gainera, bertsioak ahaztu barik, gure kantuak sortzen hasi ginen.

**Ze helburu lortu gura duzue musikan?**

Musikaren kontura bizi gurako genuke [barreak], baina oso zaila da.

Gure artean ondo konpondu nahi dugu, eta hartu-eman horretatik dator guztia: ondo pasatzea, musika sortzea eta ahalik eta zuzeneko gehien ematea.

**Nolakoak zarete zuzenekoetan?**

Zikinak eta zuzenak gara, baina sentimendu handiarekin.

# iragarkilaburrak.com

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxebizitza salgai Matienan, hiru logela, sukaldea, jangela, komuna, ganbara handia eta balkoia. Telefonoa: 650 82 35 41

**Antzuola.** Beheko auzoan etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Oso eguzkitsua. 654 98 69 02

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro eraikigarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

**Arrasate.** Bi etxebizitza salgai erdigunean. Pablo Uranga eta Iturriotz kaleetan. Bata bi logelakoa eta bestea hirukoa. 630 39 36 50

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Udalaitz dorrean. Azalera erabilgarria 94 metro koadro gehi 11 metro balkoi. Hiru logela, bainugela bat, komuna, sukalde berriztatua, egongela eta trasteleku ederra sukalde ondoan. Bi igogailu. Oso eguzkitsua, den dena kanpoaldera begira. Garaje itxia aukeran. 634 44 96 42

**Berriz.** Pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. 647 77 73 92

**Durango.** Apartamentu batera aldatzeagatik dago salgai. Ekialdeko eta mendebaldeko orientzaioa duen etxebizitza, argitsua, 3 logela, sukaldea - jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular 12 m2 eta 8 m2-koak eta terraza komunitarioak. Zurezko altzari esklusiboekinjantzia, alfonbrak, gortinak, lanparak, 2 urte dituzten elektrogailuak, berogailuaren galdara jarri berria, 4 armario enpotratu, aluminiozko leihoak, ateak eta zorua aldatuta. Garajea eta igerilekuarekin. Telefonoa: 655 70 46 84

**Etxarri Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1.esk. Erabat jantzita. 3 argi, aluminioko leiho bikoitzak, beheko sua, berogailu elektrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna, despentsa eta 20 metro karratuko trastelekua etxabean. Prezioa adosteko. 636 15 85 35 (Bitori)

**Etxarri Aranatz.** Familiabakarra salgai Etxarri Aranatzen. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela, bajera eta lorategia. Bista ederrak. Prezioa adosteko. Deitu 637 53 86 15 telefonora.

**Iurreta.** Iurretako Fray Juan Askondo kalean kokatutako etxebizitza salgai. Hiru logela, komuna, egongela eta sukaldea, 78 metro karratu. Igogailua dauka. Prezioa: 210.360 euro. 94 681 19 48

**Luz Saint Sauveur** (Frantziako Pirinioetan). Etxebizitza salgai. Duplexa. Jantzia. 670 49 84 28

**Oñati.** Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldea, egongela, 4 logela eta 2 komun. 372.000 euro. 659 53 87 62

**Oñati.** San Anton kalean estreinatzeko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean eta jantzita. Trastelekua eta patioa ere baditu. 665 71 77 96

**Oñatiko** Enpresa Zientzien campus berritik hurbil. Estreinatzeko. Azken solairuan, ikuspegidun etxe tasatu berri oso eguzkitsua: 90 metro koadro gehi 20 metro koadroko garajea. Diseinu onekoa. Igogailuarekin. 224.216 euro (BEZ barik). Informazio osorako deitu. 943 78 27 07

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi)Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75 m2). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Garagea eskuragarri. Premiazko salmenta. 658 72 92 88

**Santo Domingo de la Calzada (Errioxa).** Bañareseko kanpinean. Mobil homea. Bi gela, sukaldea, komuna eta egongela. 678 62 40 99

### 102. EROSI

**Durangaldea.** Atxondoko bikote gaztea baserri bila dabil durangaldean, erosteko prest berriztatua edo berriztatzeko. Baserri erdia ere hartuko genuke.Telefonoa: 645 72 69 37 (Usoa)

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 40 metro koadroko apartamentu berria erdigunean. Guztiz jantzita eta kapritxosoa. Aukera bikaina bikote edo pertsona bakarrarentzat. 943 85 06 23

**Arrasate.** Erguinen, Ostarku gainean, etxebizitza ematen da errentan. Deitu 17:00etatik aurrera mesedez. Jose Angel edo Laura. Deitu 615 74 32 79 edo 696 79 43 88 telefono zenbakira

**Benicarlo (Castello).** Etxebizitza ematen da errentan hondartzako lehen lerroan. Zortzi pertsonarendako lekua. Hornitua eta erosoa. 620 41 97 53 edo 964 46 50 05

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolu auzoan. 80 metro koadro. Erdi jantzita. 600 euro. 657 79 45 61

**Castello (Peñiskola).** Apartamentuak errentan. Hamabostaldika. Bi logelakoak. Guztiz jantziak eta hornituak. Hondartzatik 50 metrora. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00

**Conil (Cadiz).** Hiru apartamentu alokatzen dira Conilen (Cadizen). Garajearekin. Prezio bereziak uztailean. Telefonoa: 656 733 457

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan udarako, hamabostaldika edo ikasturterako. Hiru logela, guztiz jantzia. Hondartzatik gertu. 669 42 94 15

**Durango.** Pisua alokagai. Deitu 625 70 36 88 telefonora

**Eskoriatza.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldea, jangela, egongela, bi komun eta trastelekua. 605 77 51 65 edo 943 71 48 65

**Luz Saint-Sauveur** (Frantziako Pirinioak). Etxebizitza ematen da errentan udarako. Deitu 670 49 84 28 telefonora.

**Oñati.** 99 metro koadroko etxea ematen da errentan San Lorentzo auzoan. 4 logela, 2 komun, jantzitako sukaldea, egongela handia, garajea eta ganbara. Sukaldea, komunak eta leihoak berriztuak. Eguzkitsua eta bista ederrak dauzka. 687 00 54 79

**Oñati.** Hiru logelako etxea errentan. Bi bainugela, sukalde jantzia, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko berogailua. Laugarren solairua, igogailuarekin. 677 21 21 62

**Oropesa (Valentzia).** Apartamentua alokagai. Aste baterako edo denboraldi baterako aproposa. hondartzarem ondoan. bi logela eta sukalde-egongelarekin. Garajea dauka. Giro lasaiean. 619 18 77 99

**Oropesa (Valentzia).** Oropesa del Marreko Marina Dor urbanizazioan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 50 metrora eta bainuetxetik 100 metrora. Deitu 617 77 90 18 telefonora.

**Otxandio.** Otxandion etxe bat alokagai daukat, erdigunean kokatua. Berria eta prezio onean esakintzen dut.945 45 00 69

**Peñiskola.** Apartamentuak errentan. Hamabostaldika. Bi logelakoak. Guztiz jantziak eta hornituak. Hondartzatik 50 metrora. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00

**Ruesga bailara (Kantabria).** Txalet txiki berriztatua alokatzen da Ruesga bailaran (Kantabrian). 656 73 34 57

**Torrevieja (Alacant).** Bungalowa alokatzen da Torreviejan. Hiru gela, egongela-sukaldea, solarium. Urbanizazio pribatua berde gune eta pistinekin. 615 77 96 22 (Itxaso)

**Vieux Boucau (Landak).** Apartamentua alokatzen dot udan Landetan, Vieux Boucaun, Boucanier urbanizazioan. Igerilekua, hondartza. Apartamentuak denetik dauka, labadora, telebista... Leku bikaina. Telefonoak: 94 673 27 69 / 656 75 95 37 *joseba@erroteta.com*

### 104. ERRENTAN HARTU

**Durangaldea.** Laukotea etxe bila dabil, bikote bat gara txakur eta katu bana. Pisua, baserria, etxea errentan hartzeko prest gaude. Animaliak beti pisuan bizi izan dira ta ondo portatzen dira. 645 72 69 37

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 609 38 86 47 telefono zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 699 09 46 26 telefono zenbakira.

**Bilbo.** Bilbon errentan hartzeko pisu bila gabiltzan lau ikasle gara. Errentagatik 800 euro 1.000 euro inguru edo gutxiago eskatzen duen pisu bat nahi genuke, ahal bada 4 logelarekin edo bestela 2 pertsonentzako lekua duen 3 edo 2 logelarekin. Pisua Alde Zahar edo Abando inguruan egotea apreziatuko genuke. Jende arduratsua gara. Gurekin harremanetan jarri nahi ezkero, idatzi mesedez *pisubila11@gmail.com* helbidera. Eskerrik asko.

**Donostia.** Bikote batek honako auzo hauetan pisu edo apartamentu bat alokatuko luke: Errotaburu, Lorea, Igara edo inguruan. Oso lan egonkorrak ditugu. Alokairua luzerako. Deitu 686 65 97 20 telefonora.

**Eskoriatza.** HUHEZIko hiru neska datorren ikasturterako etxebizitza bila ari gara. Deiut 635 20 25 76 telefono zenbakira.

**Gasteiz.** Bi lagun gara eta pisua alokatu nahi dugu Gasteizen; 3 logelakoa eta alde zaharretik gertu, aukeran. 628 58 14 05 *iratibus@yahoo.es*

**Hondarribia.** Hondarribian alokairuzko etxebizitza bila dabilen bikote gaztea gara. Arduratsuak eta langileak. 660 41 57 19. *ainariss@hotmail.com*

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 655 71 77 85 edo 943 79 56 64

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deiut 619 78 63 41 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 663 72 37 44

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. 630 71 35 83

**Arrasate.** Bi ikasle behar dira etxebizitza osatzeko 2010-2011 ikasturterako. Uriburu kalean, unibertsitatetik gertu. Prezio interesgarria. 699 49 87 89.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619 78 63 41.

**Bergara.** Pisua osatzeko pertsona bat behar da San Antonion. Terraza handia eta berogailua. 646 32 94 38

**Bergara.** Logela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 230 euro hilean. Natalia. 670 85 86 68

**Bergara.** Logela ematen da errentan. Nahiago dugu kanpotarra izatea. 655 71 41 24

**Donostia.** Antiguon (Lorea) alokairu kontratudun gela argitsua eta garaje itxia eskaintzen da hilean 400 eurogatik (errenta aitorpena eginez 300 euro!), uztailaren 1etik aurrera, epe luzerako (urtebete gutxienez). 2 mutil langilerekin (27 eta 29 urte) partekatuko litzateke pisua. 2 bainu,egongela handia eta sukalde berri-berria. Paregabeko aukera. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. Hots egiguzu arren lehenbailehen 626 229 258 zenbakira.

**Eskoriatza.** Pertsona arduratsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdigunean dago. 650 82 83 48

**Oñati.** Logela ematen da errentan. 688 61 57 79

### 106. BESTELAKOAK

**Exeterren** (Ingalaterrako kostaldea) dagoen etxea eskaintzen dugu trukean Gipuzkoako kostaldean dagoen beste baten truke. Abuztuaren 9tik 26ra bitartean.*terrasti@gmail.com* edo 637 52 89 83

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Durango.** 16 m2-ko garaje itxia salgai Durangon, hizkuntza eskolaren alboan. 665 72 99 36

**Zumarraga.** 2 plaza eta sarrera automatikoa dituen garajea salgai. Egoera onean dago. Zumarragako Urdaneta kalean kokatzen da. Prezio onean. Deitu 679 23 88 67.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje bat alokatzen da unibertsitatetik oso gertu (Usaetxe enparantzan), 60 euro hilean. *soliveira@hotmail.es* edo 678 53 82 48

**Bergara.** Bergara. Boni Laskurain kalean, Santa Marina parean, garaje itxia ematen da errentan. 652 77 52 26

**Durango.** Garaje plaza alokagai Muruetatorre 1ean. Telefonoa 615 75 03 13

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garaje itxia hartuko nuke errentan Arrasate pasealekuan edo San Andresen. 652 77 13 77

**Azpeitia.** Garaje bat nahiko nuke errentan hartu karabana bat gordetzeko. Berdin zait jabearekin konpartitzea. Gehienez 50 euro hilabeteko ordainduko nuke. Interesatuak mesedez deitu 659 82 94 40 zenbakira.

**Iurreta.** Garaje plaza alokatu nahi dut Iurretan, berdin zait itxia bada. 628 00 22 19.

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. 647 24 40 54

## 3/ LOKALA

### 301. SALDU

**Irura.** Lokala Iruran, Laskibar bailaran, N-1 ondoan. 118 m2 eta 78.000 euro. Interesatuek deitu 645 72 19 47 telefono zenbakira. Telefonoa: 635 20 17 05. *igorurrestarazu@yahoo.es.*

**Urretxu.** Pabilioi industriala alokatu edo saltzen da. Urretxuko Mugitegi industrialdean. 200 metro karratuko azalera eta 8 metroko altuera. Prezio onean. Deitu: 657 77 97 52

### 302. EROSI

**Azkoitia.** Azkoitian edo inguruan txabola lursailarekin edo txabola bat eraiki daitekeen lursail bat erosi edo alokatuko nuke. 686 89 77 32

**Etxarri Aranatz.** Etxarri Aranatzen 1000 metro inguruko lursaila erosiko nuke baratzerako. Erreka inguruan. Deitu 665 71 68 57 telefonora.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arbizu.** Sakanako autobidearen ondoan roullotak, autokarabanak gordetzen ditugu eraikin batean. 680 54 67 77

**Durango.** Logela alokatzen da Ibaizabalen. Etxe berria da. Trena eta autobusa oso hurbil dituena. 652 86 57 80

**Etxarri Aranatz.** Etxarri Aranazko plazako lokal bat eskuzaldatzen da. Telefonoak: 948 46 03 12 eta 619 96 80 41.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Durango.** Pertsona bat behar da, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, egun osoa. Autoa behar da. 618 82 20 48.

**Mendaro.** Neska edo emakume bat behar da 5 urteko ume bat zaintzeko uztailean. 600 26 36 69. Marta

**Txistularia behar da** ekainean ospatuko den ezkontza baterako, Debagoienean. Deitu 650 23 34 98 telefonora.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92

**Aretxabaleta.** Aretxabaleta edo inguruetan bertako neska gaztea eskeintzen da uztailean, ordutegi arazorik gabe, haurrak zaintzeko. 663 73 49 95

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko. 659 37 41 95

**Arrasate.** Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 943 79 60 89

**Arrasate.** 20 urteko mutila prest nagusiak zaintzeko, egunero ordu batzuk. Esperientziaduna naiz. 609 98 02 52

**Arrasate.** Neska bat pertsona nagusiak, umeak edo garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izateko. Erreferentzia onak. Disponibilitatea. 638 93 11 48

**Arrasate.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 679 04 42 68

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. 647 16 40 49

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. 619 78 63 41

**Arrasate.** Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. 634 84 41 94

**Arrasate.** 20 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzari lanetan aritzeko. 619 78 63 41

**Arrasate.** Pintore edo tabernako zerbitzari lan egiteko gertu nago Debagoienan. Deitu 697 88 35 62 telefonora.

**Arrasate.** Tabernako zerbitzari moduan urte askotan ibilitakoa naiz. Herriko jaietan edo astebukaeretan lan egingo nuke Debagoienan. Edorta. *edortamendi@yahoo.es* 617 89 41 03

---

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 m². Berritua.
- Bidekurutzeta. 85 m². Berritua.
- Artekale 60 m². Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 m². Eraikitzeko.
- Masterreka 92 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 m². Berritua. Igogailuarekin.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761 €.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². 168.283 €.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

---

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- San Lorentzo, 78 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.
- Sagasti auzoa, 88 m². Berria. Oso ondo.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

---

**ERIZAINTZAKO DIPLOMADUNEN LAN POLTSA**

Izangaiak kulturaten aurkeztu behar dira ekainaren 2an, 10:00etan.

**Oinarri-arauak:** BAZen (goiz eta arratsalde) eta udaletxeko webgunean jaso daitezke: *www.arrasate-mondragon.org.*

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal Saila**

**Arrasate.** Neska batek lana egingo luke orduka. 677 73 79 59

**Basolanak.** Arrasateko mutil euskalduna gertu basoak garbitzeko: belarra, narrak... Joxe. 653 01 83 43

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677 73 79 59

**Bergara.** Paperak dituen emakumea pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 606 64 16 09

**Bergara.** Emakumea gertu haurrak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 610 34 97 88

**Bergara.** Emakumea pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu. Geriatria eta elikagaien manipulazioan tituluduna. 650 62 12 94

**Bergara.** Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu goizez eta gauez. 609 23 39 52

**Bergara.** Harakina gertu lan egiteko, hezurgabetzenesperientziaduna. Beste lan mota batzuk egiteko ere gertu. 610 91 33 40

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 28 12 edo 943 76 29 52

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. 637 18 07 23

**Debagoiena.** 27 urteko mutila gertu sukaldari lanetarako. 689 68 56 81

**Debagoiena.** Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. 638 89 98 60

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Etxeko lanak zein garbiketak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Maria Mercedes. 680 60 18 24

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten. 650 23 34 98

**Debagoiena.** Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko lituzke. 606 72 28 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. 649 71 95 21

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko gertu emakumea. 649 72 00 23

**Debagoiena.** Neska euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetan, 13:00etatik aurrera libre nago. 618 09 47 87 edo 943 78 15 10

**Debagoiena.** Bertako esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko, ospitalean gauak egiteko eta sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. 650 67 16 47

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. 689 88 97 66

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko.696 48 42 50

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. 606 64 16 09

**Debagoiena .** Autocad programarekin marrazkiak eta diseinu mekaniko zein arkitektonikoak egiten ditut. Telefonoa: 696 38 10 07

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 689 93 58 41

**Debagoiena.** Emakumea etxez etxe pedikura eta manikura egiteko prest. 654 79 07 58

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. 696 48 42 50

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 689 27 94 21

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbiketa lana edo jatetxeetan lan egiteko. 600 24 58 27

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaindu edo zerbitzari lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. 646 07 79 60

**Debagoiena.** Txistularia behar da ekainean ospatuko den ezkontza baterako. 650 23 34 98

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko eta astebukaeretan lan egiteko gertu. 699 60 91 90

**Debagoiena.** Esperientziadun neska umeak zaindu, nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izatean. 689 88 97 66

**Debagoiena.** Emakumea gertu dago pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta baita edozein garbiketa lanetarako. 691 03 25 02

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Hilean 250 euro. Deitu 14:00etatik 15:00etara edo 17:00etatik 19:00etara. 943 53 29 18

**Donostia.** Neska gaztea naiz eta Donostian zerbitzari bezala lan egiteko prest nago. Esperientzia daukat. 677 41 39 21

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635 70 07 92

**Oñati.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Trukean logela bat hartuko nuke bizitzeko. Deitu 647 83 85 77 telefonora.

**Oñati.** Umeak zaintzen ditut uztailean; esperientzia handia. Neska euskalduna naiz, ikaslea. 651 70 85 13

**Zarautz.** Zarautzen umeak zaintzeko prest nago, uztailean. Neska arduratsua. 609 98 02 52

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako: jardinero, mahastietan eta abar.658 73 08 08

**Zumaia.** Neska arduratsua eskeintzen da udaran lan egiteko ekainaren 1etik aurrera. Umezain,tabernari gisa edota berdin zait zer lanetan aritu. Lanerako gogo handiarekin! kontakturako telefonoa : 688 63 33 42 (Leire)

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** DBHko 3. mailako mutikoak eskola partikularrak hartuko lituzke udan. Deitu ondoko telefonora 21:00etatik 22:00etara. 943 76 03 75

**Bilbo.** Unibertsitari baten bila gabiltza 10 urteko haur bati ikastolako ikasgaietan laguntza emateko. Bilboko Arenalean bizi gara. 685 75 40 94

**Durangaldea.** Turismo arloko estatistika ikasgaia lantzeko durangaldekoa pertsona bat behar dut. Telefonoa: 615 00 72 16

**Durangaldea.** Hezkuntza ikerketarekin lotura duen estatistika lantzeko pertsona behar dut. Posible balitz pedagogiako ikasle edo ikasle ohia. Telefonoa: 695 45 21 94. Bizkaiko edozein herritara joateko prest.

### 502. EMAN

**Antzuola.** Eskola partikularrak ematen dira Antzuolan, lehen eta bigarren hezkuntzan laguntza behar duten umeei. 678 47 43 54 edo 943 76 50 97

**Aretxabaletan** zein inguruetan neska gaztea prest dago uztailean 15 urtera arteko gazteei eskola partikularrak emateko (euskara, ingelesa, matematika...). 663 73 49 95

**Arrasate.** Esperientziadun sukaldaria zure etxean bertan janaria prestatzen irakasteko gertu. 650 40 29 69

